

Etxalar

Aurkibidea

Udalerria: Etxalar

Sarrera



Etxalar Nafarroa Garaiko iparraldean kokatua dago. Arantza, Bera, Igantzi eta Lesakarekin batera, Bortzirietako herria da. Bera eta Sararekin (Lapurdi) du muga iparraldean; Baztanekin ekialdean; Igantzi eta Lesakarekin mendebaldean; eta Bertizaranarekin hegoaldean. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMako (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 829
- **Euskaldunak:** %90,26

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **16**
- Zintak: **24**
- Pasarteak: **565**
- Transkribatutakoak: **30**
- Audioak: **28**
- Bideoak: **466**

Proiektuak

- Bortzirietako ahozko ondarea
- Euskalkiak.eus
- Euskararen biziberritzea Bortzirietan 1970-1990
- Gazte gara gazte
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

Hizlariak



Kontxesi Arangoa Arburua (1937)



Salvadora Arburua Arribillaga (1916-2017)

Etxalarren sortu zen, Goienetxean. Guraso biak Etxalarkoak zituen.



Joxe Ramon Berroeta Pikabea (1935)

Etxalarren sortu zen, Gartxineko bordan. Guraso biak Etxalarkoak zituen.

Irene Elizagoien Bizente (1993)

Etxalarren jaioa. Gurasoak eta aiton-amonak ere etxalartarrak. Herrian hasi zituen ikasketak eta Batxilergoa egitera Berara joan zen, inguruko gazte guztien antzera. Lehengusina bat ikusita, soinu txikia jotzen hasteko grina piztu zitzaion eta 7 urte zituela hasi zen trikitixa ikasten.



[Itsaso](#) ahizpa gazteagoak laguntzen zion hasieran panderoarekin, baina gerora musika-tresnak trukatu zituzten, eta berak panderoarekin jarraitu zuen ibilbidea. Hainbat trikiti-txapelketatan parte hartu dute eta baita txapel ugari irabazi ere. 15 urte zituela berbena-talde batean jotzen hasi zen ahizparekin batera eta oraindik ere plazarik plaza jarraitzen du, Dantzadi taldearekin. Herriko umeei perkusioa irakasten aritzen da. Etxalarko dantza-taldeko kide ere bada. [Itsaso](#) ahizparekin batera egindako elkarrizketan orain arte bizitako esperientzien berri eman zigun.

Itsaso Elizagoien Bizente (1995)

Etxalarren jaioa. Gurasoak eta aiton-amonak ere etxalartarrak. Herrian hasi zituen ikasketak eta Batxilergoa egitera Berara joan zen, inguruko gazte guztien antzera. 5 urte zituela, soinu txikia jotzen hasi zen, ahizpa nagusia ikusita. Panderoarekin ere laguntzen zion hasieran [Irene](#) ahizpari. Gerora, bera bihurtu zen bikoteko trikitilaria. Hainbat trikiti-txapelketatan parte hartu dute bikote moduan eta baita txapel ugari irabazi ere. 13 urte zituela berbena-talde batean jotzen hasi zen ahizparekin batera eta oraindik ere plazarik plaza jarraitzen dute, Dantzadi taldearekin. 14 urte zituenetik gaztetxoagoei trikitixa irakasten ere aritzen da. Etxalarko dantza-taldeko kide ere bada. [Irene](#) ahizparekin batera egindako elkarrizketan orain arte bizitako esperientzien berri eman zigun.



Mabel Etxarte Ajesta (1938)

Etxalarren jaio zen Mabel (Maria Isabel), eta gurasoak bertakoak zituen: aita zentral batean egiten zuen lana eta amak artilezko zanpinak egiten zituen, saltzeko. Bost senidetan hirugarrena, 17 urterekin neskato joan zen Iparraldera. Azkainen eta Getarin egon zen umezain-neskame, eta ondoren Alemaniara joan zen Getariko familia horrekin, Coloniara. 25 urterekin bueltatu zen, ezkontzeko. Lesakara ezkondu zen, Jose Agustin Mitxelenarekin, eta hiru seme-alaba izan zituzten.





Leon Goienetxe Danboriena (1925)

Etxalarren sortu zen, Larrabetan. Guraso biak Etxalarkoak zituen.



Terexa Goienetxe Danboriena (1927)

Etxalarren sortu zen, Larrabetan. Guraso biak Etxalarkoak zituen.

ETL-021 Hizlari ezezaguna

2000. urtean Bortzirietako Euskara Mankomunitateak ahozko tradizioa biltzeko bekaren barruan Etxalarren jasotako lekukotza anonimoak.



Lorentxo Ibarra Espelosin (2007)

Etxalarren sortu zen. Gurusoak Sunbillakoak zituen.



Javier Indaburu Irisarri (1932)

Etxalarren sortu zen, Tomasenean. Guraso biak Etxalarkoak zituen.



Joxema Irigoien Sanzberro (1963)



Maria Luisa Larrañaga Telletxea (1938)

Etxalarren sortu zen. Bere ama ezkongabea zen eta alaba aurrera atera zuen bakarrik.



Cipriano Sansiñena Irisarri (1922)

Etxalarren sortu zen, Zamatelun. Guraso biak Etxalarkoak zituen.



Javier Sansiñena Sanzberro (1934)

Etxalarren sortu zen, Etxeberriberean. Guraso biak Etxalarkoak zituen.



Maritxu Zubieta Arburua (1926)

Etxalarren sortu zen, Martikoneko bordan. Guraso biak Etxalarkoak zituen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Euskara

1.1. Euskararen egoera Etxalarren

- **Hizlaria(k)**: Elizagoien Bizente, Iruñe; Elizagoien Bizente, Itsaso
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ETL-001/004
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:02:37. **Bukatu**: 00:04:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararekiko sentimendua
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Euskararen egoera Bortzirietan ona da. Beraiek euskaldunak dira, eta Etxalarren euskaraz bizi direla diote. Gaztelania hitz egiteko zailtasunak dituztela onartzen dute.

Transkripzioa

- Bueno, euskara aldetik ez da egongo hainbeste desberdintasun ala bai?
- Ez, ez. Beti lesakarrak gure euskarakin sartzen die, guk hitz batzuk diferente erraten ditugu; beraiek gotti-betti eraten dutena guk goiti-beiti erraten dugu ta, holako hitz diferentzia batzuk badaude biño ez.
- Euskara maillatik ni bai sortu zaizkiten nere gelakoak, Berakoak izaten ziren eskolatik heldu zirenak, ikastolatik heldu zirenak edo baita monjatatik heldu zirenak. Ta monjatatik heldu zirenak bai B ereduan, B eredukoak zirela ordun, bai gehiago, joera gaztelera egiteko. Ta igual batzuk kostatzen eta lagun artean eta gehio erdaraz. Hori Berako batzuketan baiño bertzela euskara aldetik ongi.
- Bai denak ere nahiko euskaldunak ta gu bezalako batzuk gaztelera iteko nahiko lan... holakok ere bai tartin.
- Bai, hemen bestela umetan herrian dana euskeraz?
- Dena!
- Bai, gu bizi-bizi euskaraz bizi gara.
- Bai.
- Ta erderaz nun ikasi duzue edo?
- Pues hemen, eskolan asinatura zela gaztelera biño, hori zer zen astian bi-hiru ordu?
- Bai, hombre gaztelera betitik sartu izan digute biño guk ere gaztelera batera frantsesa eman dugu, ordun, nik auzitzen erraten dut nik

gaztelera in biño, bahiago dut frantsesen in. Ze igual hanka sartu bitan iñen dut biño frantsesekoa dago justifikatuago bezala ordun... Ta nola hemen bertan dugun frantsesez ari direnak, pues horixe. Bai biyek.

- Ta gaztelera Beran ere bai, institutun asignatura zela gaztelera biño, kosta...

-Ta in beher baldin bada iten da, ze erremedio, ez? Biño oain kanpora joan garenin, Donosti igual euskaldunagoa da baiño honek Gasteizen ya pues...

- Bai, biño hala ere, nire oain ez in gaztelera eeh!

- Nik asignatura batzuk bai ematen ditut gaztelera hor unibertsitatin, ze euskarazko taldik ez daude edo euskarazko bueno, gaztelera asignatura batzuk ta bueno, beti igual matematika euskaraz in ta, oain matematika hori gaztelera itia kosta bai baiño bueno, iten da danera bezela; ze remedio!

2. Familia eta harremanak

2.1. Parranda egiteko lekuak

- **Hizlaria(k):** Elizagoien Bizente, Irune; Elizagoien Bizente, Itsaso
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** ETL-001/006
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:06:28. **Bukatu:** 00:10:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
Aisia » Taberna giroa
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Txikitatik dantza egitea gustatu izan zaie erromerian eta festa giroan. Parrandari dagokionez, nerabezaroan Lesaka eta Berara joaten ziren. Ondoren, Baztan ingurura. Etxalarren ez dira asko irteten, herrian urtean bi festa bakarrik baitaude.

Transkripzioa

- Eta gero hemen irtetzeko juergara edo parrandara edo, zenbat urtekin hasi ziñaten irtetzen zuek?

- Ni oroitzen naiz, irten oaindikan gure lagunak ez zienin irteten, bueno lehelengo herrian, herriko bestak ta, herriko bestetan gauetan musika ta, gu hamar- hamaika urtetako ya musika baldin bazeon guk plazan ta, guraso biyek hantxe bankun jarrite esperun. Ta gu dantzan ta dantzan bukatu arte e! Goizeko hiruak-lauak arte plazan ta bukatzen zenin gurasokin etxera. Pues hori hamar- hamaika urtetik pues... zahartxo egin arte. Biño ordun gure adiñeko iñor ez zeon plazan.

- Ez, ta normala iruitzen zait. Nik oain baditut ikaslik urte hoietakuk ta joe, ez urte hoikin itxian biño.

- Biño nik esaten dut gurasokin eh.

- Bai,bai. Nik juerga ezagutu ezagutu in nun eszenariotik. Ni hamahiru urtetan hasi nintzen ya taldiakin jotzen ta karo, ordun juerga, bueno... Biño ez giñan ateratzen hamahiru urteko haur bat. Ta hasi giñanin jotzen taldikin, gurasokin ibiltze giñen. Ta ni jendia nola mozkortzen zen eszenariotik ikusi dut, ta hola ikasi dugu! Zer nahi duzu erratia. Eta gero ya gure lagunak ere ateratzen hasi zienin lehenengo Lesaka ta Bera.

- Bai, Lesaka ta Berara.

- Ta gero ya zabaltzen zabaltzen ta oain ya edozein lekutara biño...

- Herrian baiño, orduan lehenago Berara ta Lesakara?

- Bai, nik uste bai. Herrian bertan juergan hasten ziñen juerga in zutenak, nik gure lagunak ikusita bueno bai, herrian baiño lehenago juerga, ondoko herrian.

- Igual ez ikustearren?

- Hori de.

- Oain herrian jo, ze besta dugu? Andre Marik ta Andre Maritik aparte iñauterik.

- Gazte-eguna.

- Gazte-eguna oain hasi gara hori egiten eta eztago're besta hola ez, Andre Mari hoiek bost egun, bortz egun.

-Lehengo gauzetako nik uste kanpun Beran, San Juan Bosko iten dala institutun besta egun bat. Iten diela showak eta gero bazkaria iten degula gela guztiak eta arratsaldetik ya dago juerga. Eta nik uste, hori izan dela lehelengoz .

- Ta hurrengoan Lesakako ferik, eta han ere bertze lagunak in nitun ya Lesakako, Berako, Igantzi Arantzako denakin. Nik uste dut baietz.

- Eta gero ya, hurrengo saltue Gipuzkoa aldera edo?

- Ez, ez lehenago Bortziri ya pasatu ondotik ya Don Eztebe eta Elizondo baiño Nafarrun oaindik, ez mugitu Nafarrutik ta ya hori in da... Biño gure lagunak ez dira agitz Gipuzkoa aldera're.

- Ta guk egun baten joan giñen Astigarragara, Esne Beltza zela ta ikustera eta animatu ziren gure kuadrillako bi edo hiru eta izan zen, hola bitxia edo. Saiatu giñen Astigarragara ta hogeita bost miñutuan hola alleatu giñen.

- Bai segidun.

- Eta ordun erran zuten "joe baiña Astigarraga dao Elizondo baiño hurbillago" eta hola da. Iduri du Astigarraga Gipuzku pasa behar degula peajea ta, ya gelditzen dela han baiña, ez,ez bertan.

- Denborez, Elizondo bezala.

- Elizondora gehixeo Astigarragara baiño.

- Eta Hernanira eiten dugu urtero sagardotegira ta holako batzuk Gipuzkura bai baiño, gehien bat gure kuadrilla behinpin Elizondo, Doneztebe; hoiek oain behintzat. Hoiek bitara gehien.

- Eta Iruñera?

- Iruñara agitz gutxi.

- San Fermiñetara.

- Baiña karo, pasatzen dena da San Fermiñak Lesakan're ditugu, ordun lehelengo benpin Lesakako San Fermiñak iten ditugu. Hemen bost miñutura dago Lesaka. Ta gero joan izan gara ze urte pare batez? Iruñara. Biño hura haundiya baita guretzat. Gu hobeki moldatzen gara ttikiyin.

- Iruñara bai, kursillon bat itera edo azterketan bat itera.

-EGA eta Selektibidadia.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Hezkuntza aukera herri txikietan (ETL-001/003)

Eurek jasotako hezkuntzaren inguruan hitz egiten dute. Etxalar herri txikia izaki, bertako eskolan haurrak hamabi urte arte egoten dira elkarrekin eta adin ezberdinetakoak nahastuta. Gero derrigorrezko bigarren hezkuntza egiteko Berara joaten dira.

2. Ipar Euskal Herriarekin duten harremana (ETL-001/005)

Etxalar Ipar Euskal Herriarekin muga egiten duen herria izan arren, ez dute joera gehiegi euren aisialdia bertan igarotzeko. Nafarroan eta Gipuzkoan mugitzen dira.

3. Trikitiarekiko zaletasuna eta trikitilarien egoera Nafarroan (ETL-001/007)

Trikiti zaletasunari dagokionez, lehengusuari zor diote musikari izaera. Trikitilarien egoeraren inguruan dihardute, noiz eta nola hasi ziren trikitia eta panderoa jotzen. Nafarroan trikitilariak festetako egitarauan zati izatea ez da ohikoena. Eta musika horrekiko zaletasuna ere ez dago hain zabaldua.

4. Aisialdia eta Etxalarko dantza taldea (ETL-001/008)

Andra Mari dantza taldeko kide dira, eta urtean bi emanaldi egiten dituzte, "bestetan" eta "gasna ferian".

5. Dantzadi taldearen sorrera (ETL-001/009)

Beraien musika taldea nola sortu zuten kontatzen dute. Egun "Dantzadi" izena du, eta jada sei urte daramatzate euren taldekideekin Euskal Herriko plazak girotzen.

6. Trikitilari gisa izan duten ibilbidea I (ETL-001/010)

Itsaso eta Irune trikitilari txapelketetan parte hartzen hasi ziren, eta horren bitartez jende asko ezagutu dute, beraien moduan trikitia maite duena.

7. Trikitilari gisa izan duten ibilbidea II (ETL-001/012)

Trikitilari gisa txapelketetan zenbat urtez ibili diren kontatzen dute.

8. Musikarekiko konpromezua: nondik datorkie? (ETL-001/013)

Itsasok musika odolean daramala dio, eta trikitiaz zein panderoaz gain, beste musika tresna batzuk ere jotzen ditu. Elizagoien ahizpek Etxalargo elizan organoa jotzen dute.

9. Elizagoien ahizpen ibilbidea eta Etxalarko trikitilarien historia (ETL-001/014)

Euren taldearekin (Dantzadirekin) eta eurek trikitiari gisa izan duten ibilbideaz dihardute. Trikitilari gisa bikote gisa duten lana herri inguruan handitzen doa: geroz eta jende gehiagok eskatzen ditu euren zerbitzuak.

10. Musikari izatearen gorabeherak (ETL-001/015)

Musikari izatearen alde on eta txarren inguruan hitz egiten dute. Oñatiko anekdota bat dakarte gogora.

11. Probintzien arteko ezberdintasunak (ETL-001/016)

Kontzertuen ordutegiak dituzte hizpide. Gipuzkoan eta Nafarroan bestelakoak dira kontzertuak iraupenari dagokionez. Musikari gisa Itsasok erromeriak motzagoak izatea eskertzen du.

12. Emakumeak eta musikariak (ETL-001/018)

Parrandan musikari, neska eta gazte izatea nolakoa den kontatzen dute. Alde txarrak ditu, baina baita onak ere. Horrez gain, zaleen inguruko kontuak eta eurek beste musika talde batzuekiko duten zaletasuna ere aipatzen dituzte.

13. Dituzten musika erreferenteak (ETL-001/019)

Beraiek gustuko dituzten musika taldeak ere trikiti taldeak dira.

14. Ze musika jotzen du Dantzadik? (ETL-001/020)

"Dantzadi" taldeak jotzen duen musikaren inguruan dihardute. Euskaraz abesten dute, eta horrekin lotutako anekdota bat dakarte gogora.

15. Nola lotzen ditu Dantzadi taldeak kontzertuak? (ETL-001/021)

Dantzadi taldeak kontzertuak nola lortzen dituen kontatzen dute. Egun sare sozialen bitartez lortzen dituzte. Dena den, nahiago dute zuzeneko kontaktua bitartekariena baino eta aurreko pasarteko anekdotari erreferentzia egiten diote.

16. Trikitilari kuadrila lagun (ETL-001/023)

Aisialdian beste trikitilari batzuekin elkartzen dira. Urtean behin, ordea, etxera ekartzen dituzte. Irunek gustuko du euren artean dagoen hizkuntza aniztasuna.

17. Parranda ostean autoz etxera (ETL-001/024)

Parrandatik nola itzultzen diren kontatzen dute. Autoz mugitzen dira, eta jada ohituta daude. Kontzertuak ematera joaten badira ez dute alkoholik edaten, ikusleekiko errespetuagatik eta kontzertuaren ondoren gidatu egin behar dutelako.

18. Parranda giroa eta ligatzea (ETL-001/025)

Festa eta parranda giroaz dihardute. Trikiti giroa bestelakoa da eta droga mundutik aldendu samarra dago, salbuespenak egon arren. Ligatzeari dagokionez, kontzertuetan jendea ezagutzea ez da horren erraza.

19. Trikitixa irakasle gisa esperientzia (ETL-001/026)

Beraien esperientzia kontatzen dute trikiti irakasle gisa. Bortzirietako trikiti eskola nagusia Lesakakoa da, baina herri guztietan trikiti eta pandero eskolak ematen dituzte.

20. Sare sozialak (ETL-001/027)

Sare sozialek beraien bizitzetan duten eraginaz hitz egiten dute. Aisialdirako eta bizitzan oro har ez dituzte gehiegi erabiltzen.

21. Musikaz gain, beste zaletasun batzuk (ETL-001/028)

Musikaz gain, euren zaletasun nagusia animaliak dira. Hamabi katu dituzte etxean. Mendira joatea ere gustatzen zaie, baina igande goizetan atseden hartzen dute, larunbat gauetan kontzertuak ematen baitituzte.

22. Napar-Mex musika (ETL-001/029)

Nafarroan mexikar musikak duen arrakastaz dihardute.

23. Plazarik onenak (ETL-001/030)

Kontzertuak emateko plazarik onenak Urola inguruan (Gipuzkoan) topatu dituztela esaten dute. Nahiz eta Bizkaiko zein Nafarroako herri batzuetan ere plaza oso onak dauden.

24. Hitanoa eta iseka egiteko hitzak (ETL-001/031)

Hitanoa mutilen artean erabiltzen den trataera da Bortzirietan. Etxalar inguruan nesken artean ez da erabiltzen. "Xerbela" eta "ilupa" bezalako hitzak iseka egiteko erabiltzen dituzte.

25. Usategietako lan baldintzak (ETL-003/001)

Usategietan 25 urte egin zituen lanean. Nola hasi zen azaltzen du. Han "diktadura gogorra" zela erraten du. Esate baterako, hango zaharrek edaten zuten ardoa gazteek eraman behar zuten bizkarrean. Ura ere beraiek eraman behar zieten baldetan. Baina 30 urte baino gehiago zituela, aurre egin zien. Gazteei zaharrek irabazten zutenaren erdia ordaintzen zieten. Egun batean, ados ez zeudela esan eta %85 irabaztea aldarrikatu zuten

26. Usategietako lanpostua gorde (ETL-003/002)

Zein mendietan izan zen azaltzen du. Soldadu joan zenean, lanpostua ez galtzeko, norbait paratu behar izan zuen bere orde. Lehenbiziko bere aita joan zen

27. Korneta seinaleak (ETL-003/003)

Usoak nondik heltzen ziren arabera, korneta dei ezberdinak izaten ziren: hiru toke larrealdera, toke bat erdira eta bi toke Domikora. Altueraren eta multzoaren tamainaren arabera ere dei mota desberdinak zeuden. Korneten jatorria azaltzen du.

28. Hotza (ETL-003/004)

Mendian hotza egiten zuela-eta, sua egin zuen, baina arbolak ere sua hartu zuen. Gero, botila bat ardo multa (isuna) jarri zioten.

29. Usategietan lan egiteko beharrezko papera (ETL-003/006)

Usategietan lanean aritzeko paper bat behar zuten. Kontrabandoen aferengatik bati ez zioten eman.

30. Isunak (ETL-003/007)

Lo hartzen bazenuen, botila bat ardoko isuna ordaindu behar zenuen. Bitan harrapatzen bazintuzten, bi botila.

31. Iratze metak. Anekdotak (ETL-003/008)

Bere aitari usategietako langile batek iratzea ebatsi zioneko anekdota kontatzen du. Bere aitak meta-ziriak egiten zituen.

32. Etxolarik ez (ETL-003/009)

Lehenbizian ezin zuten etxolarik izan; txapa batzuen azpian atsedean hartzen zuten.

33. Nagusiak usategietara joaten zirenean (ETL-003/010)

Egun batzuetan herriko lau lagun joaten ziren: harakina (haragia eramaten zuena), Periko nagusia, Jenaro eta Batista usozalea. Haiek etortzen zirenean, sukaldetik alde egin behar zuten; ezin ziren barruan egon nahiz eta eguraldi txarra izan.

34. 1939ko haize gogorra (ETL-003/012)

1939an haize gogorrak arbola anitz bota zituen. Periko Arribillagak egur hori aprobetxatu zuen.

35. Lanpostu aldaketa (ETL-003/014)

Langile batzuk mendian urrun, sareetatik urrun 25 urte inguru aritu ondoren, bi mutiko berri sartu ziren (gizon zaharren semeak) eta sareetan paratu zituzten. Bera eta beste bat kexatu ziren, sareetan lan egiteko eskubide handiago zutelakoan (25 eta 22 urte ondoren).

36. Usategietan sartzea gauza handia zen (ETL-003/016)

Usategietan sartzea gauza handia zen. Normalean familiako jendea sartzen zuten.

37. Usategietako nagusiak (ETL-003/017)

Usategietako nagusiak lau ziren: bi hemen eta beste bi Iparraldean.

38. Preso eraman zutenekoa (ETL-003/018)

Lanean ari zela, sei "guardia móviles" azaldu zitzaizkion. Paperak eskatu zizkieten, baina ez zituen. Beraz, preso eraman zuten eta ez zioten abisurik ematen utzi. Iruritako errekan kamioi zahar batean sartu zuten eta bertan usategietako beste langile bat zegoen atxilotua. Sarako kuartelera eraman zituzten. Azkenean, alkatea beraien kargu egin zen eta libre utzi zituzten. Bueltan mugaldeko buruzagia zen koronelarengana joan ziren eta honek zelako tratua jasan zuten galdetu zien.

39. Usategietako langileen eginkizunak (ETL-003/020)

Usategietako langileek eginkizun ezberdinak zituzten: bat "trapa" zen, buruzagia; bertze bat "trapa-biela", bertze bat "biel-trapa" eta "haritza"; hauek ziren gizon zaharren lanpostuak (paletak botatzen zituen mutikoa izan ezik) .

40. Paletak (ETL-003/021)

Paletak nolakoak ziren azaltzen du.

41. Gizonen eta mutikoen arteko harremana (ETL-003/023)

Gizonen eta mutikoen arteko harremana zaila zen. Gizonek beti agintzen zieten mutikoei. Hiru gizonekin ("hiru errege" erraten zieten) gertatutakoa azaltzen du: beraientzako ardoa mendira eramateko esan zioten eta berak ezetz esan zien.

42. Usoak ehizatzeko prozedura (ETL-003/024)

Usoak ehizatzeko prozedura azaltzen du. Urrundikan hasten ziren usoak biltzen, bideratzen, "xatar" izeneko trapu batekin jotzen zutela. Usoak biltzen zituztenean, paletak botatzen zizkieten eta, gehienetan, beheiti etortzen ziren. Trapan buruzagia izaten zen. Usoak sareetatik ateratzen zituztenean, lepotik ausiki eta burua okertzen zizkieten.

43. Abata. Usoak herrira eraman (ETL-003/025)

Uso batzuk erreklamotarako (abata) uzten ziren. Buruan eramaten zituzten. Iruñeko bat uso eske etorri zeneko anekdota kontatzen du.

44. Zenbat diru irabazten zuten (ETL-003/026)

18.000 pezeta inguru jasotzen zen, Iratin ibiltzen ziren mutilek hiru urtetan jasotzen zutena. Baina haiei erdia (%50) ematen zieten. Urteberri egunean kobratzen zen. Urtean hiru "txatar" erabiltzen zituzten eta bakoitzak bere poltsikotik ez ordaintzea aldarrikatu zuen.

45. Ardoa (ETL-003/027)

Lanean edaten zuten ardoa nondik eramaten zuten eta bestelako kontuak azaltzen ditu.

46. Zenbat uso harrapatzen zen (ETL-003/029)

Uso gehien harrapatu zutenekoa: 1400 dozena. 200 dozena uso hartu zituzten egunean, mutilei launa eman eta gizonen artean zortzina banatu zituzten.

47. Usoak non saltzen ziren (ETL-003/030)

Lehen dena Espainian saltzen zuten, gero frantsesak ere hasi ziren erosten. Zaila zen usoak mugaz bestaldera eramatea.

48. Dena aldatu da (ETL-003/031)

Gaur egun oso uso gutxi etortzen da, lehengoarekin konparatuta, hamarretik bat besterik ez. Harrapatzeko modua ere asko aldatu da.

49. Etxolan ere gizonak eta mutilak bereizirik (ETL-004/001)

Gizonek gela berezia zuten, jantokia mahai eder batekin. Mutikoek, berriz, sukaldean jaten zuten: bi bankutan eta kamaina gainean banatuta. Gero mahai bat paratu zuten. Anekdota bat kontatzen du.

50. Propina (ETL-004/003)

Etxolan bazegoen propinen (eskupeko) botea, baina mutilei ez zieten deus ematen. Gizonek beraien ardoa erosteko erabiltzen omen zuten.

51. 100 dozena uso galdu (ETL-004/004)

Baziren hamabi egun usorik ez zela heldu eta jaitsi ziren. Gero egunkarietan berria azaldu zen: "Ehun dozena uso galdu zituzten, Lesakako ferietara joan zirelako".

52. Usoak nola eramaten zituzten (ETL-004/006)

Bizirik zeuden usoak metro eta erdiko saskietan eramaten zituzten bi gizonen artean, buruan paratuta; 50 uso (25 kilo) inguru eramaten zituzten. Hilik zeuden usoak zakutan eramaten zituzten: 100 bat uso, 50 kilo inguru.

53. Jatekoa (ETL-004/007)

Jatekoa etxetik eramaten zuten mutikoek.

54. Tiro egitera aberatsak joaten ziren (ETL-004/008)

Lehen, aberatsak bakarrik joaten ziren tiro egitera. Aberats batzuen etxean ikusi zuen telebista aurrenekoz.

55. Sarako errenta eta segurua (ETL-004/009)

Lehen, Sarako errenta beraiek ordaindu behar zuten (orain, berriz, Udalak ordaintzen du); segurua ere nagusiari ordaindu behar zioten. Ez zuten jornalik (orain bai), harrapatzen zenaren arabera irabazten zuten. Hondar aldera larri ibiltzen ziren eta berak lana utzi zuen.

56. Kanpoko jendea. Hirugarren igandea (ETL-004/011)

Fama handia zuen Etxalarko usategia. Bilbotik eta Frantziatik etortzen zen jendea. Urriaren hirugarren igandean baileia egiten zen; jende anitz biltzen zenez, ezin zen usorik harrapatu.

57. Gerra 1 (ETL-004/012)

Hamalau urte zituen gerra hasi zelarik. Urte beltzak izan ziren; gosea eta falanjistak etorri zirela gogoratzen du. Orduan hasi zen esnetegian lanean: goizeko bortzetan hasten zen eta hiru pezeta besterik ez zuen irabazten. Ez zen dirurik

58. Esnetegia. Kaseina (ETL-004/014)

Esnetegian kaseina nola egiten zuten azaltzen du: makina batekin esneari gaina kentzen zioten, gurina egiteko, eta gelditzen zena bidoi handi batera joaten zen. Biharamunean, kaldera piztu behar zen eta berotzen zen bitartean bueltak eman; gero idortzen paratzen zen kaseina hori eta, azkenik, makina batekin xehetzen zen. Gelditzen zena, gazura zen eta zerrientzat saltzen zen. Orduan 1000 litro esne inguru biltzen zen; etxe guztietan izaten ziren behiak

59. Gerra 2 (ETL-004/015)

Gerra garaian ez zen izaten ogirik; baldin bazen, opila jaten zen. Errazionamendua eta "rekisak" (konfiskatze) izaten ziren.

60. Antxolokuetako besta (ETL-004/016)

Antxolokuetako errepidean besta bat egiten zen. Haiek egindako banderinak paratzen zituzten, baina erre zituzten eta zalaparta handia izan zen gero ordaintzeko. Andre Maria egunaren ondoren izaten zen besta. Mahaiaik paratzen zituzten eta bildotsa jaten zuten.

61. Santa Kruz (ETL-004/017)

Santa Kruz egunean ermitara joaten ziren gaztetan.

62. Bederatzi anai-arreba (ETL-004/018)

Bederatzi anai-arreba ziren. Bi arreba Uruguaira, beste bi arreba Frantziara eta hiru anaia Iparramerikara joan ziren. Bera bakarrik gelditu zen etxean

63. Ela-ela 1 (ETL-004/019)

Beraientzat ela-ela oso garrantzitsua zen, garai hartan laranja bat gauza handia baitzen. Nondik joaten ziren azaltzen du.

64. Ela-ela 2 (ETL-004/021)

Ela-ela kantaren letra erraten du: "Ela-ela, nor da nor da, ni naiz urteberri, zer ekarri berri, uraren gaina, bakea eta osasuna, etxekoandrea ona, nagusia hobe, txantxilipitona, goiz afari ona, kupelaren barrenean, mama gozo, haurra jostatzeko, tira-tira artilleria...".

65. Egurra presara (ETL-004/023)

Etxalarko oihanean lanean aritu zen arbolak botatzen. Egurra presara botatzen zuten eta presa betetzen zenean, konporta irekitzen zuten. Beheko presaraino eramaten zen egurra. Lan gogorra zen, bustitzen ziren eta hotzak egoten ziren; zortzi duroko jorrala jasotzen zuten.

66. Afrikan soldadu (ETL-004/025)

Afrikan hiru urtez soldadu egon zen. Paludismoa harrapatu eta oso gaizki ibili zen; bi hilabeteko permisoa (baimena) eman zioten, baina, makien afera hasi zela-eta, bertan behera utzi zuten. Denetarik zegoen: zorriak, (kukusoak) arkakusoak, txintxeak (zimitzak), ladillak (potrozorriak), eta abar.

67. Zortzi urtetan hasi zen lanean (ETL-005/001)

Zortzi urtetan hasi zen lanean. Baserri batera joan zen mutil; han lo egiten gelditu behar zen, baina lehenengo gauean ohean sartu eta berehala jaiki eta etxeko emakumeari bere etxera joan nahi zuela esan zion. Beraz, egunero joan eta etorri egiten zuen. Behiak ibiltzen zituen, artoa erein, belarrak egin eta haurtzain lana ere egiten zuen. Pezeta bat eguneko ordaindu behar zioten, baina ez zen hala izan. Neguan ez zen lanera joaten, etxean gelditzen zen eta eskolara joan.

68. Osaba eta izebaren baserrian mutil (ETL-005/002)

Hamar urtetan osaba eta izebaren baserrira joan zen lanera. Han lotan gelditzen zen. Artzain lana egiten zuen (80 bat ardi zituzten). Igandetan etxera joaten zen: goizean mezara eta gero egun osoa etxean amarekin; astelehen goizean berriz baserrira joaten zen. Han hiru urte egin zituen.

69. Baserriko lana. Mutil lana 1 (ETL-005/004)

Egunero 40 bat ardi jezten zituen. Osabak ardiak prestatzen zituen jezteko: ilea kendu eta garbitu. Listuarekin bustitzen zituen behatzak eta tirriki-tarraka jezten zituen ardi guztiak; gero, bigarren pasada ematen zuten, berriz ere jezten zituzten denak. Lo gelditu zen eguneko anekdota kontatzen du.

70. Baserriko lana. Mutil lana 2 (ETL-005/006)

Udan behiak ere mendira bildaltzen zituzten. Normalean osaba joaten zen bi behiak jeiztera, baina beste lanak egin behar zituenean, bera joaten zen.

Baserriko arto guztiak egun batean gorozten zituzten bozpasei lagunen artean. Behien esnea marmita batean eramaten zuten menditik etxera; izan ere, hiru edo lau litro besterik ez zuten ematen bi behiek.

71. Lera (ETL-005/008)

Iratzea, egurra, belarrak eta bestelako tresnak garraiatzeko lera erabiltzen zuten. Lera nolakoa zen azaltzen du.

72. Golde-perla, erreستا eta area (ETL-005/009)

Baserri batzuetan, malda zela-eta, ezin zen golde-makina erabili, horren ordez, golde-perla erabiltzen zuten. Nolakoa zen azaltzen du. Golde-perlak pasa ondoren, erreستا pasatzen zuten, lurra xehatzeko. Erreستا nolakoa zen eta nola ibiltzen zuten azaltzen du. Batzuetan bera erreستaren gainean joaten zen. Ondoren, aria pasatzen zen eta, azkenean, berriz erreستا pasatzen zen. Denbora pasa ahala, tresnak hobetzen joan ziren; esate baterako, erreستا beharrean, arpa erabiltzen hasi ziren. Mandoei tresnak nola lotzen zitzaizkien azaltzen du.

73. Artoa ereiteko tresnak (ETL-005/010)

Artoa ereiteko markak nola egiten zituzten azaltzen du. Gero artoa eskuekin ereiten zen (ilarra ere ereitzen zen tartean). Ondoren are ttikia pasatzen zen. Artoa atera ondoren, bostortza pasatzen zuten (astoari lotuta) eta gero aitzurrarekin jorratzen zuten.

74. Gorotza (ETL-005/012)

Gorotza ateratzeko sardea erabiltzen zuten (bi, hiru, lau edo bortz hortzetakoa). Arraplamakoa ere erabiltzen zuten (lau edo bortz hortz izaten zituen). Arto tartean botatzen zen gorotza saskietatik. Emakumeak aritzen ziren anitzetan botatako gorotza hedatzen.

75. Belarra. Bihurrak (ETL-005/014)

Bere gazte denboran belarra segaz egiten zen. Egurrezko giderra zuen. Sega nola zorrozten zen azaltzen du. Bere anaiarekin beste baserritara joaten zen belarrak egitera. Goizean belarra segarekin pikatu eta, arratsaldean, zurezko sararekin hedatzen zuten. Biltzeko denboran ere sara erabiltzen zuten; zamak egiten zituzten eta bihurrekin lotzen zituzten. Bihurrak otsailean egiten zituzten egur berdearekin. Belar zamak bizkarrean hartuta eramaten zituzten baserrira; batzuetan lerak ere erabiltzen zituzten. Berak ez zituen ia kakolak erabili, ezta maindireak ere. Behin belarra eraman ondoren, bihurrak altxatzen zituzten eta biharamunean berriz erabili ahal izateko, ez xehatzeko, uretan beratzen uzten zituzten bi orduz-edo.

76. Hargin (ETL-005/015)

Hamasei urtetan hargin peoi hasi zen. Dena dela, lanarik ez zegoen denboran, labrantza lanean aritzen zen. Bere ustez, hargintza lan gogorrena da; labrantza gogorra da, baina maite du.

77. Errekako legarra. Tunberoa (ETL-005/017)

Errekako legarra biltzen zuten hargintzako lanetan erabiltzeko. Tunberoa (gurdi mota bat) erabiltzen zuten garraiatzeko.

78. Ogia estraperloan (ETL-005/018)

Ogia ezkutuan ekartzen zuten. Gaztetan, beste bi lagunekin, Sararako bidean zegoen "arruporda" (ardi borda) batera joaten ziren gauez, haraino eramaten baitzituen ogiak Sarako mutil batek. Bakoitzak zazpi edo zortzi ogi (bi kilokoak) hartzen zituzten. Gau batean gertatutakoa kontatzen du: tiroak entzun eta ogiak bota behar izan zituen.

79. Kontrabandoa 1 (ETL-005/019)

Egunez lanean eta gauez kontrabandoan aritzen zirenean, ia ia ez zuten lorik egiten, ordu pare bat besterik ez. Besteak beste, ardi ileak, puntillak eta errodamenduak eramaten zituzten. 40 bat kiloko paketeak izaten ziren. Guardiekin gertatutako anekdota kontatzen du: gau batean bere paketea utzi behar izan zuen, baina beste batek botatakoa jaso zuen. Bere anaiak, berriz, txaketa eta guzti galdu zuen.

80. Kontrabandoa 2 (ETL-006/001)

Nagusiek edota enkargatuek biltzen zituzten peoiak. Kontrabandoa egunero izaten zen. Bera hargintza lanean baserri batentzako ari zen eta horko nagusiek kontrabandoa antolatzen zuten; hori zela eta, berari ez zioten deitzen kontrabandoan ibiltzeko, goizez nekatuta izanen zelakoan eta lan gutxiago eginen zuelakoan. Baina baziren beste kontrabando taldeak eta hauetako batekin hasi zen. Bidai erdia egiten zuen (eta soldata erdia ordaintzen zioten) baina hamaiketarako etxean izaten zen.

81. Kontrabandoa 3 (ETL-006/002)

Kontrabandoan almendrakin hasi zen. Oso gogorra zen. Igantziko bentan hartzen zuten 42 kiloko zakua (35 besterik ez zuela pisatzen jartzen zuen) eta zazpi orduko bidea egin behar izaten zuten, Sarako errekaraino. 15 duro irabazten zituzten; hargintzan, berriz, berak hamar duro irabazten zituen eguneko lanagatik (hamaika bat ordu lanagatik).

82. Etxean estu ibili ziren (ETL-006/004)

Zazpi anai-arrebak ziren. Bera haurra zela, hiru behietatik bi hil zitzaizkien hilabete batean eta hirugarrena eritu zen; tratante batek oso merke erosi zien. Familia, beraz, behirik gabe gelditu zen. Tratanteak hainbeste haur esnerik gabe geldituko zirela ikusita, bere aitari behi zahar bat utzi zion, haiek bazka eman eta esnea hartzeko. Artoa ereiteko azienda pareak behar zutela-eta-, osaba batek miga gazte bat utzi zien eta behi zaharrarekin hezi zuten lanean aritzeko. Etxean estu ibili ziren.

83. Irabazten zuten dirua gurasoei ematen zieten (ETL-006/005)

Gazterik hasi ziren lanean anai-arrebak eta dirua gurasoei ematen zieten. Berak, ezkondu bitartean, diru guztia amari ematen zion (bestak egiteko sosa ezik, noski).

84. Karlistadak 1 (ETL-006/006)

Bere bi aitatxiak karlistadetan izan ziren. Bere emaztearen aitatxiak karlistadetara joan behar zuen, baina desertatu zuen eta Sarako baserri batean gelditu zen; gero familia osoa ere joan zen hara. Ardiak poliki-poliki pasatu zituzten muga bestaldera. Herriaren kontura jaten zuten soldaduek eta

Udala arruinatu zuten; hori zela eta, lur komunal batzuk saldu zituen Udalak dirua lortzeko. Bai karlistek bai liberalek, baserrietan janaria ebasten zuten

85. Karlistadak 2 (ETL-006/007)

Peña Platako batailaren ondoren, eskapo zetozen karlista aunitz, herri ondoan dagoen haitz handi batetik erori eta hil ziren. Baserri batera joan ziren batzuk eta han "meha" gazte bat hil eta bertan jan zuten. Gero Baztan aldera joan omen ziren, Frantziara pasatzeko.

86. Lur komunalak (ETL-006/009)

Karlistadetan herria arruinatu zela eta, lur komunal batzuk saldu zituen Udalak. Gero arazoak izan dira komunalak edo pribatuak diren frogatzeko.

87. Aita eta biak zinegotzi izan ziren (ETL-006/011)

Bere aita kontzejala (zinegotzia) izan zen Errepublika garaian. Anekdotak bat kontatzen du: udaletxean Alfonso XIII erregearen erretratua zegoen eta gizon batek kentzeko esan zion bere aitari, baina berak ez zuen nahi. Iruñetik agintzen zutenean kenduko zutela esan zion azkenean alkateak.

88. Auzolanak (ETL-006/012)

Auzolanak derrigorrezkoak izaten ziren. Bi egun egin behar zituen familia bakoitzak. Bera zinegotzi izan zen garaian, auzolana egiten ez zuenak sei duro ordaindu behar zituen. Udalan ez zen ia dirurik izaten, kotribuziotan biltzen zuten diruaren zati handiena Diputazioak eramaten baitzuen. Udalak dirua behar zuen, besteak beste, albaitari eta botikariari ordaintzeko eta hainbat azpiegitura lanak egiteko. Beraz, azkenean, Udala zorpetu zen. Diputazioak emandako mendi lote bat saldu zutenean hasi ziren zorra ordaintzen. Kontribuzioa %10 igo zuten (ez Diputazioak eskatutako %20a) eta auzolana ez egiteagatik isuna ere igo zuten (apeza eta maestraoa besterik ez ziren libre).

89. "Parisko putzua" (ETL-006/013)

Ez du inoiz ikusi baina badaki non dagoen "Parisko putzua". Oso sakona dela esaten dute.

90. Etxalarko ola zaharrak. Ebatsitako neskak (ETL-006/014)

Etxalarren, gutxienez bi lekutan izan ziren olak. Ola zaharretan ijitoek neskak bat ebatsi omen zutela kontatzen zuten aitak; ijitoekin hazi zela eta artista famatua izan omen zela. Ola zaharreko harrietatik burdina ateratzen zuten. Harria berotzen zuten eta burdina bereizten zen; gelditzen zen "eskoria" (zepa) etxeak egiteko erabiltzen zuten garai hartan

91. Sorginak eta lamiak (ETL-006/015)

Lami-zuloarekin izutzen zituzten haurrak bere garaian.

92. Defuntuen arimak. Amesgaiztoak (ETL-006/017)

Defuntuen arimak ateratzen zirenean, mezak atera behar ziren. Osaba batek kontatu zion artzain etxola batean munstro bat ateratzen zela. Berak izandako amesgaiztoen istorio bat kontatzen du.

93. Hontzaren istorioa (ETL-006/018)

Bere aita gaztea zela, garrasi izugarriak entzuten hasi ziren baserri ingurutan. Apaiza hil berriaren arimaren oihuak zirela esaten zen. Baina, azkenean, hontza bat zela ikusi zuten.

94. Etxeko erremedioak (ETL-006/020)

Etxeko erremedio batzuk azaltzen ditu. Anginendako, gatzeta uretan urtu eta gargarak egin. Gripe, katarro eta neumoniarendako, berbena belarrak (Sanjuanetako lehenbiziko ilargi zaharrean bildutakoa da onena)

95. “Golpebelarra” (ETL-007/002)

“Golpebelarra” nolakoa da azaltzen du. Argizari eta olioarekin nahasten da pomada bat egiteko. Kolpeak edo zauriak zikatrizatzeke (orbaintzeko) erabiltzen da

96. Sugeen ausikia sendatzeko (ETL-007/003)

Sugeen ausikia sendatzeko 21 salbe (“agur erregina”) erreztatzen ziren. Zazpi salbetikan gelditu eta behar duzu Trinidad Santuari bihotz-bihotzez eskatu mina kentzeko, hagitz fuerte kontzentratuta. Bere etxeko ardi bat errapeetatik ausikitua izan zen eta ez zuen mokadurik hartzen; bere izeba ardiaren ondoan erreztatzen hasi zenean, ardia jaten hasi zen. Beste etxetara ere joaten zen bere izeba erreztatza.

97. Kuranderoak (petrikiloak) (ETL-007/004)

Baziren kurandero (petrikilo) famatuak. Errate baterako, Iruritako emakume bat (“Mojita” erraten zioten) kurandero hagitz ona zen. Bere amautxik min ikaragarria hartu zuen zangoan eta Mojitarekin errezoen ondoren sendatzen hasi zen. Bere aitak tripako mina izaten ohi zuen eta Mojitarengana joan zen: honek haizea eta odola nahastua zuela eta babarrun asko jateko esan zion (haizeak botatzeko).

98. Pregoi eguna (ETL-007/005)

Pregoi egunean, gizona andregaiaren etxera joaten zen lehenbiziko aldiz bazkaltzera.

99. Apezari kantatu (ETL-007/007)

Urtezahar arratsean apezari kantatu.

100. Ezkontzak (ETL-007/008)

Garai hartan, goizeko bostetan ezkontzen ziren asko. Bera goizeko zortzietan ezkondu zen. Lehenago, etxeetan egiten ziren otorduak; bi eguneko ezkontza bat gogoratzen du, festa ederra izan zen etxe hartan.

101. Herrien fama eta errateak (ETL-007/009)

Herrien fama eta errateak. “Igantzi, Madrid chiquito” (bortz herrien artean famatuena). “Etxalar, beti zahar”. “Bera, zerri kaka biltzera”. “Zugarramurdi, al culo le llaman ipurdi”. Arantzakoek harrikari fama zuten eta Zugarramurdikoek jotzaile fama.

102. Beste herriekiko harremana (ETL-007/010)

Lehen ez ziren Arantza eta Igantziko bestetara joaten; Bera eta Lesakara, berriz, urtero joaten ziren. Baztandarrekin harreman handia izaten zuten, Etxalarrera mandatuak egitera joaten zirelako. Sararekin ere hartu-eman hagitz polita zuten

103. Euskara (ETL-007/011)

Etxalar eta Sarako euskara oso diferentea da. Berak oso ongi ulertzen du Sara eta inguruko herrietako euskara, han lanean izan zelako, eta oso polita iruditzen zaio. Zuberoa aldekoa, berriz, ez du erraz ulertzen. Etxalarko euskara Elizondo eta Sunbillako euskararen antzekoa da. Baztango euskara, berriz, oso diferentea da. Berakoek eta Lesakakoek batez ere, tonu ezberdina dute

104. Ama ezkongabeak (ETL-007/013)

Apeza oso gogorra zen, eta neska bat ezkondu gabe haurdun gelditzen bazen, guardia zibilek inklusara eramaten zuten. Haurra inklusan gelditzen zen eta ama etxera itzultzen zen.

105. Baserritarrak eta karrikarrak (ETL-007/014)

Lehen baserritarra "tontoago" jotzen zuten. Karrikarrek burla egiten zioten

106. Eskolara gutxi (ETL-007/016)

Zortzi urtetan hasi zen lanean, beraz, eskolara gutxi joan zen. Gero, hamabost urtetan mojetan sartu zen berriz eta "sumar eta restar" ikasi zuen.

107. Oinetakoak (ETL-007/018)

Bere denboran jende gutxi ibiltzen zen oinutsik. Espartinak erabiltzen zituen, baina berehala xehatzen ziren. Abarkak ere erabiltzen zituen, baina zola liso-lisoa zuten eta erortzen ziren. Kubiartekin egindako abarkak hasi ziren geroago. Egurrez egindako eskalapoiekin ere anitz ibili da (espartinekin paratzen ziren)

108. Harrikatza (ETL-007/019)

Harrikatz-minak (meatzeak) zeuden Etxalarren.

109. Erleak 1 (ETL-008/001)

Erregina bat izaten zen beti. Martxo edo apiril aldera erregina bat bere talde handi batekin joaten zen. Oihanetan, arbol zuloetan izaten ziren eta ikusten zuenak, gurutze bat markatzen zuen, berea zela adierazteko. Aunitzetan hartzen zituzten eta beste leku batera eramten zituzten. Udazken aldean kentzen zen eztia (negua pasatzeko hainbat uzten zen). Azukrea paratzen zitzairen. Eztia kentzeko aurpegia eztaltzen zuten eta kea bota. Hartutako zatiari eskuarekin eztia kendu ondoren pilota antzeko bat gelditzen zen ("txokota" erraten zioten) eta hori zupatzen aritzen ziren. Argizaria urtzen zuten etxean emateko eta, aunitz zutenek, saltzen zuten kandelak egiteko.

110. Kukusobelarra (ETL-008/002)

Bere amautxik kukusobelarrarekin arraskatzen zuen solairua; distira ateratzen zion eta oso usain ona gelditzen zen

111. Erleak 2 (ETL-008/003)

Erleren bat ateratzen bazen, erlauntzira nola bildu azaltzen du. Erregina behin ikusi zuen (hegalak luzakara zituen). Erlauntzak nolakoak ziren azaltzen du: batzuk egurrezko kutxak ziren eta beste batzuk adaxkekin trentzatuak (gero behi kaka eta lurrarekin egindako masarekin estaltzen ziren).

112. Erleak 3 (ETL-008/004)

Erleen inguruko erranak eta sinesmenak: ezin zirela saldu, zorte txarra ematen zutelako; etxeko nagusia edo etxekoandrea hiltzen zelarik, erlauntzan jo eta erleei hildakoaren berri ematen zitzaien.

113. Argia (ETL-008/005)

Beti ezagutu du argia etxean (ilunabarrean, ehotzen amaitzen zenean, errotatik ematen zuten, baina bizpahiru ordu besterik ez zuen irauten). Gainerakoan, azufrea eta ura nahastean sortzen zen gasa erabiltzen zen argitzeko. Bestetan argia izateko herriak petrolioa erabiltzen zuten aparatu handi batzuk ekartzen zituen. 50ko hamarkadan Iberduerok jarri zuen argi etengabea. Lehenago pinuen erretxina erabiltzen ohi zuten.

114. Karlistak (ETL-008/007)

Bere amatxiren etxea hartu zuten karlistek eta familia osoa kuarto batean sartuazari zuten. Apaizak soldaduei esaten ziona konfesatu ondoren: “zeren fedearen alde jokatu zaren, zeruaren erdian zaude”. “40 palos” zigorra izaten zuten soldaduek. Karlistak, ihesi zihoazela, arroila batetik erori ziren eta han bertan enterratu zituzten. Kanta batzuk baziren: “Carlos chapas se marcha a Bayona, ay que gusto sin corona, dile que te den, dile que te han dado agua de limón con azúcar y bolado”.

115. Beste herriekiko harremana (ETL-008/008)

Baserrikoek Berako baserrikoekin erlazio handia zuten. Etxalar eta Sara harreman handia zuten. Etxalarren dendak zeudenez, jende anitz joaten zen erosketak egitera eta mezara.

116. Hilarri berezia (ETL-008/009)

Iratzea egiten zuten tokian hilarri bat zegoen: “Aquí falleció Juan Suescun, natural de Mendigorria, vulcando un árbol, día de 31 de agosto de 1898”. Antza karretera egiten ibilitako peoia zen.

117. Makiak eta soldaduak (ETL-008/010)

36ko gerra denborako iheslari errepublikarrak ziren makiak. Etxalarko zerrategian soldaduen kanpamentuak zeuden. Gau batean gertatutakoa kontatzen du. Beste behin, bonba bat lehertu eta gizon bat hil zen.

118. Soldaduak eta presoak (ETL-008/011)

Soldadu anitz izan ziren. Presoak ere izan ziren, baina “los trabajadores” erraiten zieten. Hainbat errepide egin zituzten. Erraten zuten preso batek sarjentu bat hil eta ihes egin zuela.

119. Bonba batekin ezbeharra (ETL-008/012)

Gerraostean ezbeharra izan zuten bonba batekin. 1939an, bost urte zituela, lagunekin jolasten, pote gorri bat topatu zuten larrain handi batean. Lehertu egin zen eta batek besoa galdu zuen, beste batek behatzak, bere anaia itsutu zen denbora luzez, berak metraila zatiak izan zituen sabela eta besoa eta guardia bat hil zen. Irun eta Donostiako ospitaletara eraman zuten autoz. Igantzin ere mutiko bat hil omen zen bonba batekin.

120. Bunkerrak (ETL-008/013)

Hondarribi eta Erronkari artean den-dena bunkerrez ("nidos") beteta zegoen. Herriko errekatik legarra ateratzen zuten bunkerrak egiteko. Bere aitak soldaduei ixilka erosten zien porlana edo burdina, lan egiteko. Frantziari beldur omen zion Francok.

121. Desertoreak (ETL-008/014)

Soldadu joan nahi ez zuten batzuk Frantziara ihes egin zuten. Hainbat urteren buruan libratu zituzten. Ondoko baserri bateko gizon bat Frantziara joan zen, baina herriko bestetan baserrira etorri zen eta harrapatu eta Miranda de Ebrora preso eraman zuten (handik ere ihes egin zuen). Etxalarko bat soldadu zelarik kamioiarekin kontrabandoan aritzen zen eta Guardia Zibilak harrapatu zuen, baina Sararat ihes egin zuen .

122. Desterratuak (ETL-008/015)

Ostatua zuen gizon bat desterratua egon zen Bizkaian. Itzuli berria zela gertatutako anekdota bat kontatzen du.

123. Herrien fama (ETL-008/016)

Aranztarrak, harrikalariak; igantziarrak jakintsuak; lesakarrak, mozkorrek; etxalartarrak, inbidiatsuak; eta beratarrak, orgullosoak (harroak). Etxalarkoak gorritz janzen ohi dira. Baztandarren izaerari buruz mintzatzen da. "Sunbilla, buena villa, mala gente" erraten da. Malerrekakoak, errebelde samarrak

124. Kisua (ETL-008/017)

Kisua egiten zuten. Kisu harri hoberena zuriena da; Salvatore ermita ondoan dagoen harrobikoa hain zuzen. Behiekin garraiatzen zituzten harriak. Kisulabea egiten zuten eta ondoan sekulako arbazta pila prest izaten zuten. Sei edo zazpi egunez izaten zen erretzen. Gero egun pare uzten zuten hozteko. Bere aitak kisua etxea zuritzeko eta morteroa (legarrarekin) egiteko erabiltzen zuen. Lehen zurezko barriketan gordetzen zuten; ura botatzen zioten eta, irakiten zuenean, makil batekin eragin behar zitzaion. Azkenean depositora irauli behar zen. Bere etxean lanean ari zen gizon bat sabela erre zuen iraultzerakoan beste aldera joan zitzaiolako kisua. Etxea zuritzeko isopo luze batekin ematen zen kisua

125. Ikatza (ETL-008/018)

Orduko kamioiek eta kotxeek gasegenoa erabiltzen zuten, eta hortarako ikatza behar zen. Bi ikazki ezagutu zituen herrian.

126. Maizter eta etxaldekoen arteko diferentziak (ETL-008/019)

Maizter eta etxaldekoen arteko diferentziak. Maizterrak ezin ziren zinegotzi izan eta lurrak ongi zaindu behar zituen; batzuetan nagusiak erraten zionari eman behar zion botoa. Zenbaitetan, belarraren, artoaren eta ilarraren kantitate bat ere eman behar zion nagusiari. Bere etxean errenta bakarrik ordaindu behar zen (urteberritan ordaintzen zuten).

127. Igande arratsaldeak. Ostatuak (ETL-008/021)

Igande arratsaldetan zer egiten zuten azaltzen du. Pilotan aritzen ziren eta, urte batzuetan, plazan akordeoia izan zen. Neskak karreteran pasieran ibiltzen ziren eta mutikoak ere handik pasatzen ziren. Gero ostatueta hasten ziren mutilak (18 urte inguru zituztela). Herrian zeuden ostatuak aipatzen ditu. Emakumeak lehen ezin ziren ostatutan sartu

128. Bailea (dantzaldia) (ETL-008/022)

Herrian eta Irazakon bailea izaten zen. Apezarekin beti arazoak izaten ziren. Anekdotak bat kontatzen du.

129. Auzo eta herriaren arteko diferentzia (ETL-009/001)

Auzo eta herriaren arteko diferentzia izaten zen. "El barrio cantarranas" eta "el barrio de los sapos" erraten zen. Herrikoek, karrikakoek, eradara gehiago erabiltzen zuten. Baserritarren ustez, karrikakoek marjinatzen zituzten. Eskola garaian baserritarren eta karrikakoen arteko diferentzia nabaria zen, baserritarrak askotan ez zirelako joaten, lan egin behar baitzuten.

130. Erranak (ETL-009/003)

Erranak. "Kanpotikan lilia eta barnetikan maialen" erranaren esanahia azaltzen du. "Gizon bizar gorria, andre zigortzailea".

131. Erremedioak (ETL-009/005)

Sugeen ausikiarendako, Migel aitzinerat erreztatu behar zela erraten zuen bere aitak. Depresioa omen zuen emakume bati apezak ebanjelioak leitu zizkion. Belauniko minarendako erremedioa: bere amatxik erromeroa erabiltzen zuen. Kolpeetarako zorne-belarra erabiltzen omen zen, baita berbena eta zauri-belarra. Gibelarentzat, parietaria (horma-belar) erabiltzen zen; mutil batek ikerizia izan zuen eta parietaria hartzen hasi zen medikuari esan gabe. Herpesentzat egiten zena azaltzen du.

132. Ilargiaren eragina arbolak botatzeko (ETL-009/007)

Egurra botatzeko ilargiari begiratu behar zaio. Besteak beste, altza egurrari dagokionez: batzuetan adakia erraz hausten da eta, bestetan, adakiak oso gogorak izaten dira (karroen lardaiak egiten zituzten hauekin). Gaztainak ere, lardaiak egiteko, maiatzeko, apirileko edo iraileko ilargi zehatz batean bota behar dira.

133. Bihurak (ETL-009/008)

Belarra lotzeko bihurak erabiltzen zituzten. Maiatzean egiten zituzten eta urte batetik bestera altxatzen zituzten. Beste batzuek librean kargatu edo kakolak erabiltzen zituzten.

134. Ortziraletan eguraldia aldatu (ETL-009/010)

Sakristauak erraten zuen ortziraletan eguraldia aldatzen zela.

135. Eguraldia igartzeko (ETL-009/011)

Eguraldia igartzeko moduak. Zugarramurdiko ezkilak aditzen zirenean, iduzki haizea zela esan nahi zuen: “orduan bota belarra aisa, pikatu aisa”. Tren txistua aditzen baldin bazenuen “malo”, edo Berako fabrikako sirena, orduan ere txarra, azpiko haizea. Sukaldeetan kedarra beheiti etortzen baldin bazen, kasu, euria. Katuak muturra modu batera garbitzen bazuen, euria ere. Azienda urduritzen da galerna datorrenean. Txakurrak trumoiak iragartzen ditu. Aziendak menditik jaisten direnean, eguraldi txarra. Okilak kantatzen badu, euria

136. Egulardiari buruzko erranak (ETL-009/012)

Egulardiari buruzko erranak. “Erramu eguneko haizea, 40 eguneko haizea”. “Kandelerero bero, negua heldu da gero. Kandelerero hotz, negua motz”. “Abenduko izarra eta ostatuko neskatzakin kaso” (aldakorra).

137. Usain ona izateko (ETL-009/013)

Atso batek kontatu zion gaztetan txanbra barnean menda hostoak sartzen zituela usain ona izateko.

138. Txanbra, espartinak eta tonberoa (ETL-009/014)

Blusari txanbra erraten diote. Frantsesatik datozen hitzak omen dira. Espartinak eta tonberoa (orga iraultzeko), besteak beste.

139. Sinesmenak (ETL-009/015)

Sinesmenak. Arrabioen (salamandren) ausikiarendako, ezkilak jo. San Antonio egunean aziendak ez dira lotu behar.

140. Onddoak (ETL-009/016)

Etxalar partean batez ere onddo beltza hartzen da. Onddo zuria eta ziza horia ere hartzen dira. Gibel urdina gutxi izaten da. Gorringoa hondar aldera ateratzen da. “Onddo salatzaileen” bat topatzen duzunean, ingurua ongi begiratu behar duzu, onddoak seguro izanen direlako. Besteak beste, haritzetan, gaztain gazteetan eta pagoetan ateratzen dira. Onddoek itzala baino, eguzkia dute nahiago. Irailetik aitzin hartzen den onddoak gehiago aguantatzen du. Mendian, goiti, beranduago ateratzen da. Gizon batek onddoen zati bat ereiten zuen eta hurrengo urtetan onddoa etortzen zen. Bere aitaren denboran, kasu gutxi egiten zitzairen onddoei, olio eskas izaten zelako. Onddoen inguruko erranak: Iratzekin eztali eta hazten direla erraten da; lehenago erraten zuten onddo bat ikusi ondoren ez zela ateratzen.

141. Arrantza (ETL-009/017)

Txikitan batik bat txipak arrantzatzen zituzten (amu bat eta hari puska batekin); barboak ere hartzen zituzten. Lotreak harriak altxatu eta eskuz harrapatzen zituzten. Lehen amurraingain aunitz zegoen; bere aitak eskuz hartzen zituen. Aingirak nola harrapatzen zituzten azaltzen du; batzuetan kordelarekin hartzen zituzten. Ia ez zen kangrejuri (karramarrorik) izaten. Izokinak Bidasoan zeuden, umatzen ari zirelarik, batzuetan gauez joaten ziren gantxoekin (makoeikin). Batzuek kisua botatzen zuten erreka eta amurraingainak

goiti ateratzen ziren; baina geroago lixiba botatzen hasi ziren eta horrek kalte handia eragiten zion errekari.

142. Etxeko lan banaketak (ETL-010/001)

Amak azienda, haurrak, etxea eta gainerakoak. Aita ikatza egiten.

143. Lurra altxatzen 1 (ETL-010/002)

Artoa ereiteko, lurrak altxatu behar ziren bizkarka. Horretarako saski txiki batzuk erabiltzen zituzten mehatzak. Elkarri emanaz aritzen ziren.

144. Lurra altxatzen 2 (ETL-010/004)

Aita, arreba eta hirurak aritzen ziren. Aitzurka mehatz saskiak bete eta txandaka pasatzen zuten saskia lurra altxatzeko. Hurrak zirenez ata erraz nekatzen zirenez, aita zigarroa erretzeko aitzakian atsedena egiten zituzten.

145. Lurra aratu eta zikinak bildu (ETL-010/005)

Behi parearekin aratzen zen lurra. Zikinak bildu eta erre egiten ziren.

146. Gorotzak atera (ETL-010/006)

Denak atera eta hedatu egin behar ziren. Itza-mutilaren lana zen gorotza larria zen egunean hura hilduan sartzea. "Hildua: irauli eta irauli dabil mua".

147. Hilduan ari (ETL-010/007)

Behi bat lur iraulitik joaten zen eta beste behi bat irauli gabeen. Bat errekan eta bestea gainean. Hitz-mutilla, normalean haurra, hura zuzentzen eta sarde txiki batekin gorotza larria bazen, errekara ateratzen zuen bestela goroldioak hartzen zuen hura eta ez zen komeni.

148. Behiek mingaina ateratzen bazuten, atsedena eman (ETL-010/008)

Irauli aldi bat egin ondoan eta batez ere bero handia egiten bazuen 11:00 aldera edo atsedena eman behar zitzaion behiei. Behiek mingaina ateratzen bazuten itozteko arriskua zuten. Horregatik itzal batera eraman eta freskatu egin behar zituzten animaliak.

149. Erresta edo arpa pasa (ETL-010/009)

Artoa landatu aurretik oraindik erresta pasatu, berrir ere aretu eta zen lurraren arabera berriz ere erresta pasatu behar zioten makinarekin ereiten hasi baino lehen. Malinak erabiltzen hasi baino lehen aldiz, markatu eta erein egiten zuten eskuz. Gibeletik arearekin tapatzen joanen zen beste pertsona bat,

150. Lur orgila edo kozkorra (ETL-010/011)

Lur orgilak, kozkor gogorak baldin bazeuden, han ezin zen erein haziak behera joaten zirelako. Halakoetan mailu batez xehatu behar ziren orgilak.

151. Belarrak pikatu (ETL-010/012)

Belarra segaz moztzen zuten. Joxe Ramonek segalari txarra izaten zela aitortu digu baina han ari behar zuela. Gero gurdi gainean bazkaltzen omen zuten. Denbora bazen siesta pixka bat ere egiten zuten. Ondoren buelta eman

152. Belarrak sartu (ETL-010/013)

Egun batean pikatu eta hurrengoan sartu egin behar zen belarra. Bildu eta bordara sartu behar zen "eguzkia karaz kara, tarratiluarekin eta sartu beharra aunitz".

153. Zamak bizkarrean (ETL-010/014)

Belar eta ahotzak bizkarrean hartuta eramaten zituzten. Egurrezko kakolak ere erabiltzen zituzten zamak eramateko. Bilurrak.

154. Afaria (ETL-010/016)

Arrautza gutxi jaten zuten saldu egiten zituzten eta. Patata gisatua gehienetan.

155. Afal ostean kontrabandora (ETL-010/017)

Kontrabandoko paketea eske atera behar izaten zuen Joxe Ramonek afal ostean. Izutu egiten zela dio, bazter guztietan ateratzen baitziren guardiak.

156. Kontrabandoko lagun bat (ETL-010/019)

Kontrabandoan batera aritzearen bidez egin zuen lagun on bat oroitarazten du.

157. Larrakaitzan kontrabandoa (ETL-010/020)

Kontrabandoko paketea non hartu eta nora joaten ziren. Nondik eta nola. Nongoekin eta nola moldatzen ziren beste aldekoekin kable bidez.

158. Kontrabando jornala zenbatera (ETL-010/021)

Berrogei duro, 200 pezeta, 1,2€.

159. Almendra kontrabandoa (ETL-010/022)

Joxek 16 urte zituelarik almendra eramaten zen Frantziara. Gogoan du nondik eta nola sartu zuen muga. Orduan 7 duro ordaindu zizkieten. Agian gaurko mila duroren balioa izanen zuela dio Joxe Ramonek nora nahi arto jorrara edo joanda ez omen zenuen diru hori irabazten.

160. Kontrabandoko baldintzak (ETL-010/024)

"Ez genuen oinetakorik, ez sirarik, bizkar larrua edo azukre zakua erabiltzen genuen babesteko"

161. Kontrabandoa abisatzera etxera. Peoiak (ETL-010/026)

Orain Irunen bizi den emakume bat ibiltzen zen Joxeren etxera abisatzen, peoi lanak egiten. Emakume haren anaiek ere kontrabandoan lan egiten zuten. Garai hartan ez zen ez motor ez auto alde batetik bestera ibiltzeko. Gauzek denbora gehiago behar izaten zuten. Emakume hau siesta garaian ibili ohi zen abisuak ematen.

162. Kontrabandoaren organigrama (ETL-010/028)

Nagusiak orain nagusi direnak ziren, haiek nahi izan zutenean kontrabando guztia amaitu zen inguruan. Pasatzeko berriz bi buru zeuden.

163. Paketea galdu ezkeror... (ETL-010/030)

Paketa galdu ezkeror bikoitza eta gehiago deskontatzen zuten.
Nagusiak, salatariak...

164. Eltzetzu bikotea atera (ETL-010/032)

Kamioiren bat deskargatzen ari zirelarik eltzetzu bikotea edo guardia bikotea agertu omen zitzaien. Guardiak bulkatu eta korrika atera omen ziren. Bidean zamarra galdu zuen eta barruan identitate karnea zeraman.

165. Garai onean utzi nuen kontrabandoa (ETL-010/034)

Kontrabandoarekin ikaratuta 31 urte zituelarik fabrika sartzeko aukera izan zuelarik utzi zuen ogibidea.

166. 12 zaldi galdu zituztenekoa (ETL-010/036)

Santiago egun batean oihanean zaldi gizen batzuekin zetoze, kume bat erreka zuloa erori eta gainontzekoak etzan zitzaizkien zulo inguruan. Gibeletik aldetik eltzetzu (guardiak) etorri zitzaizkien, tiroketa egon zen eta han utzi behar izan zituzten zaldiak

167. Hamasei pakete galduak ditu (ETL-010/037)

Hamasei pakete galdu izan ditu bizian Joxek, 16 bidai jornalik gabeak eta sustoa jasota.

168. Erosten ziren eltzetzuak (ETL-010/039)

Anaiak bidai bat eskaini zion, gogorik ez zuen arren atera zen. Bueltan zeudela eltzetzu gaztainondo baten azpian ilunean. Laguna tiroz jo zuten eta larri ibili ziren.

169. Nagusiarengana (ETL-010/041)

Nagusiaren etxera joan zen gertatutakoa kontatzera. Nagusiak medikua deitu zuen kura egiteko.

170. Soldadu kartila aurkeztean (ETL-010/043)

Gazte guztiek soldadu kartila izaten zuten eta fabrika paga estra kobratzeko soldadu kartila eltzetzu firmatua eraman behar zen.

171. Baztanaldeko Castor (ETL-010/045)

Castor izeneko bat izugarria izan behar zuen kontrabandoan. Baztandarra zen. "Kristonak" egianak omen da Castor defuntu hura. Eta handiak izan behar ziren Espainiako Estatua zituen kontaktuak. Behin hola zauritu bat, Castorren medioz Madrileko erietxe batean sendatu zuten.

172. Nola kobratzen zen lana (ETL-010/047)

Hemengo nagusia etxera etortzen zitzaizun lana ordaintzera." Jende asko kobratu gabe gelditu izan zen behin baino gehiagotan eta egoera horrek gertakari larriak sortu izan ditu.

173. Kontrabando abisuak (ETL-010/049)

Aunitz seinale izaten ziren beste bazter batzuetan trapu zuriak eta baina Joxe Ramonek eta ez dituzte erabili.

174. Aita ikazkina. Txondorra edo ikaztia 1. (ETL-010/051)

Txondorra egiteko ikazti plaza prestatu behar da leku zelai batean. Erdian xotoi bat sartuko zen eta alde guztietara neurtuko zuten ea erdian zen. Bazter guztian egurra bildu behar da. Xotoi hari koadro txiki bat egingo diote metroko zotoi estuak sartuko dizkiote. Haren onduan sarea patuko dute egur meharrekin Beti zuzen mantendu behar da. Bukaeran egur arrailak egingo dituzte eta tximinia eginen diote. Azpitik egur larriak emanaz ibiliko dira. Iratu. Ur eta lurreko masa egingo dute orduan. Egurrezko palak erabiliz masa paratuko dute ikazti osoa estali arte, zulo bat utziz. Su eman behar delarik. Su eder bat alde batean egingo da eta palarekin brasak sartuko dira ikaztian. Pixka bat piztutakoan tapatu egingo dute. Ikatze ez omen da erretzen, egosi berriz.

175. Ikaztia 2 (ETL-011/001)

Zulo batzuk egin eta abar handi batekin mugitzen da. Haurrik ez da ibiltzen ikaztietan. Ikatza egosia denean egun pare batean ingura garbitu ondoren hasten dira ikatza ateratzen. Makua erabiliz ateratzen da ikatza. Arratailoz guztia arrastatu behar da.

176. Ikatz zaku betetzea (ETL-011/002)

Bi lagun artean betetzen ziren zakuak.

177. Hego haizearekin (ETL-011/004)

Hego haizearekin su hartzen bazuen ikaztiak, lanak izaten ziren hura itzaltzen.

178. Aitari mendian pasatutakoak (ETL-011/005)

42 zaku denak erreak.

179. Basoko etxola (ETL-011/007)

Nolakoak ziren ikazkinen etxolak.

180. Basoan jatekoa (ETL-011/009)

Iratzea egiten aritzen ziren. Goizean joaten ziren hiru aita semeak. Patata egosiak jaten zituzten gosaltzeko. Bazkal garairako arreba etortzen zen saskian bazkaria zuelarik.

181. Etxeko ogia 1 (ETL-011/011)

Arrazio bat izaten zen etxean. Amak armairutik ateratzen zuen eta bost puska egiten zituen. Bakoitzak bere lekua zuen.

182. Mahaian bakoitzak bere lekua (ETL-011/013)

Mahaian bakoitzak bere lekua zuen. Aita eta ama mahai buruan. Alaba aitaren ondoan

183. Etxeko ogia 2 (ETL-011/015)

Bakoitzak bere puska izaten zuen eta amak bere puskaren erdia aitari ematen.

184. Ama azkena jaten (ETL-011/017)

Amak denei emanen zien eta berak azken jaten zuen.

185. Jatekoak (ETL-011/019)

Opil eta esnea. Gaztainak, gasnak.

186. Gasna egin (ETL-011/021)

Gatzagirik ez zuten erabiltzen Joxe Ramonen etxean, botikarekin egiten zuten.
Prozesua: txikitu, zimitzean patu, gazura atera zapatuz

187. Zerria hil (ETL-011/023)

Zerria hil, lukainak olio eta gurinean kontserbatu. Apaizak berendua ostutzero etortzen ziren

188. Apaiza etxez etxe (ETL-011/025)

Apaiza bere monagiloarekin alorrek bedeinkatu ostean, lur jabeen etxera joaten omen zen gosaltzera, beste etxe batera bazkaltzera... Andre bati esan zion apaizak -lehengoan zuen alorra bedeinkatu nuen urruti xamarretik. Andreak esan omen zion: -Hagitz ongi. Jaso zenituen oilaskoak? -Ez, nik ez nituen jaso-apaizak. -Ez? Nik xendotik beiti bidali nituen bada!

189. Apaizak bestetan (ETL-011/027)

Pulpitutik besten aurka, dantza lotuen aurka amei atentzioa deituz.

190. Erditzean (ETL-011/029)

Erditzean etxetik atera gabe egon behar zuten emakumeek eta ateratzen baziren teila bat jarri behar zuten buru gainean. Gero elizara kandela batekin joan behar zuten apaizak bedeinkazioa emateko.

191. Ama ezkongabeak (ETL-011/031)

Ama soltera batek erditzean Mariaren Alabak kongregaziotik botatzen zuten.

192. Baserriko tabikeak lurrezkoak (ETL-011/033)

Lurrezko tabikeak zituen Joxe Ramonen etxeak.

193. Hesiak ardientzat (ETL-011/035)

Neguan egiten zen lan bat zen. Ez zegoen dirurik piketak eta alanbreak erosteko eta horregatik egiten zituzten hesiak ardientzat.

194. Aita segan oinutsik (ETL-011/037)

Aita askotan malda asko zen lekuetan oinutsik ibiltzen zen belarra pikatzen.

195. Erremedioa apoarekin (ETL-011/039)

Apoarekin erremedioa.

196. Inautetan (ETL-011/041)

Inautetan bi pareja beztitzen ziren eta karroza egiten zuten behi parearekin. Gerra ondoan eta beti egin dira inauteak Etxalarren.

197. Inautetako damalariak 1 (ETL-011/043)

Emakumez janzten zen bat eta bestea mutikoa. Arropa luzeak janzten zituzten. Kalejiran Villarreal aberatsen etxe aurrean gelditu eta dantzatu egiten zuten. Jota edo pasodoble bat akordeonista ekarrita.

198. Inautetako damalariak 2 (ETL-011/045)

Beste auzora jarraitzen zuen kalejirak eta Hiruzkarrin, notarioaren etxean limosna jasoko zuten leihotik

199. Inautetako damalariak 3 (ETL-011/047)

Sosa biltzen ibiltzen ziren bandejarekin eskean. 800/900 mila pezeta biltzen zituzten bere garaian. Garaian neskak ez ziren ateratzen. Soldadu joan aurretik hesten ziren. Fondan gosaltzen zuten arrautzak eta xingarra bildua eta edariak eta postrea ordaindu egiten zen fondan. Estankoan bazkaria egiten zuten: garbantzua ziztor eta guzti. Bildotsa ere bazkarian. Akordeonista ordaintzen zuten.

200. 16 urterekin kontrabandista (ETL-012/001)

16 urterekin hasi zen behien kontrabandoan

201. Kontrabandoko pasadizoak 1 (ETL-012/003)

Behor kontrabandoan ari zela behin karabineroek harrapatu baina ihes egitea lortu zuen. Kontakizuna

202. Kontrabandoko pasadizoak 2 (ETL-012/005)

Paketeen kontrabandoan. Kontakizuna

203. Kontrabandoko pasadizoak 3 (ETL-012/006)

Eltzetzuak. Kontakizuna

204. Kontrabandoko pasadizoak 4 (ETL-012/007)

Karabineroek eta kontrabandistak elkar ezagutzen zuten. Kontakizuna

205. Kontrabandoko pasadizoak 5 (ETL-012/009)

Antolaketa, seinaleak,... Kontakizuna

206. Kontrabandoko pasadizoak 6 (ETL-012/010)

Paketeen pisua, jornaia,... Kontakizuna

207. Kontrabandoko pasadizoak 7 (ETL-012/011)

Beti lortzen zuten ihes egitea. Kontakizuna

208. Kontrabandoko pasadizoak 8 (ETL-012/012)

Karabineroek ez zuten beti airera botatzen. Kontakizuna

209. Eraman eta ekartzen ziren gauzak (ETL-012/013)

Kafea eta almendra hemendik eramaten ziren. Handik azienda, puntilla, kobrea, botikak,... ekartzen ziren

210. Kubiartak, okerrenak ekartzeko (ETL-012/014)

Ekartzeko okerrenak kubiartak izaten ziren

211. Jenerala kontrabandoan (ETL-012/015)

Jeneral batek irrati eta telebisten kontrabandoa egiten zuen.

212. Eltzetzuak aberastu (ETL-012/017)

Eltzetzuak erosten ahal ziren kontrabandoan oztoporik ez jartzeko eta haietako askok dirua egin zuen

213. Lesakako lantegia jartzean kontrabandoa galdu (ETL-012/019)

Lesakan lantegia jarri zutenean jendea lanera sartu zen eta kontrabandoa desagertu egin zen. Hainbat familia zorretan gelditu ziren

214. Lehenago guztiak nekazari eta abeltzain (ETL-012/020)

Lehenago gizonak nekazari eta abeltzain lanetan aritzen ziren. Etxalartik milaka litro eramaten ziren Iruñea eta Donostiara. Aldian behin, gain-saria jasotzen zuten

215. Behiak, ardiak eta zerriak (ETL-012/022)

Etxe guztietan hazten zituzten behiak, ardiak eta zerriak. Zerriak Irurtzunen saltzen zituzten

216. Lurra lantzen (ETL-012/023)

Lurra nola landatzen zuten, zein tresna erabiltzen zuten eta zer landatzen zuten

217. Esne anitz (ETL-012/024)

Esne aunitz ekoizten zen Etxalarren eta diru asko sartu da horri esker

218. Karlistak (ETL-012/026)

Karlisten inguruan aditutakoak kontatzen ditu: herriko zaharrek Frantziara alde egin zutela, tiroketen berri, non dauden lurperatuak,...

219. Padre Etxalar (ETL-012/027)

Lekarozeko fraideen nagusia Etxalarkoa zen eta Padre Etxalar deitzen zioten. Bere inguruko kontuak

220. Gerra denbora eta gerraostea (ETL-012/028)

Gerra denboran eta gerra ostean errekiak egiten ziren: zikiroak, bildotsak, behiak, artoa, xingarra,...

221. Zerria isilka hiltzen (ETL-012/029)

Gerra ostean, zerria hiltzea ez zen libre eta zenbaitek isilka hiltzen zuen

222. Ogi bila beste aldera (ETL-012/031)

Gerra ostean azukrea eta ogirik ez zen. Mugaz beste aldera pasatzen ziren handik ogia eta arto irina ekartzera.

223. Makiak (ETL-012/033)

Makiak gutxi ibili ziren inguruan, Baztango mugatik pasatzen ziren. Bidasoa gurutzatzean ito egin zen baten kasua aipatzen du. Hildako gehiago izan zela aipatzen du

224. Militarrek makien bila (ETL-012/035)

Egunez egun ibiltzen ziren militarrek makien bila

225. Igandeak (ETL-012/037)

Gazte garaian, igandeetan, goizeko 7etan mezara joaten ziren, gero gosalduta arditara joaten ziren. Arratsaldean herriko plazan elkartzen ziren pilotan eta dantzan aritzeko.

226. Urtezahar egunean “ela-ela” (ETL-012/039)

Urtezahar egunean puska-biltzea egiten zuten, sagarrak, intxaurrak eta egurra eskatzen zen. Kantaren zati bat edo beste gogoratzen du

227. Herrira ez, etxez etxe (ETL-012/041)

Puska-biltzea etxez etxe egiten zuten, herrira ez ziren jaisten

228. Gerraostea (ETL-012/043)

Gerraostean olio eta azukrerik ez zen, baina soldadu zegoenak ekartzen zuen. Asturiaseko langile batek ekartzen zien haiei olio

229. Olio ekartzeko eskatu (ETL-012/045)

Terexak kontatzen du nola hitzartu zuten olio ekartzea Asturiaseko langilearekin

230. 9 urtez azukrerik gabe (ETL-012/047)

Gerra eta gerra ostean 9 urtez egon ziren azukrerik gabe

231. Patatak esnegainaz frijitu (ETL-012/048)

Terexak kontatzen du esnegainaz frijitzen zituztela patatak

232. Arrautzak saldu (ETL-012/049)

Arrautzak eta oilaskoak, gehienbat, saldu egiten ziren. Diru horrekin, adibidez, arraina erosten zen

233. Jatekoa bazuten (ETL-012/051)

Artoa, esnea, patata, ilarrak, xingarra,... guzti hori bazuten baserrian

234. Gosaria (ETL-012/052)

Esnea gosaltzen zuten. Sardina zaharra ere bai

235. Sagardoa (ETL-012/054)

Sagardoa egiteko prozedura azaltzen dute. Ilargia kontuan hartzen zutela zehazten dute

236. Pittarra (ETL-012/055)

Pittarra ere egiten zuten, baina gutxixeago

237. Hozkailurik ez zen (ETL-012/057)

Hozkailurik ez zen lehen. Haragia kontserbatzeko nola egiten zuten azaltzen dute baita zein elikagai egiten zuten ere

238. Tomatea kontserbatzeko modua (ETL-012/058)

Tomatea kontserbatzeko nola egiten zuten azaltzen du

239. Gazta (ETL-012/060)

Gazta nola egiten zuten azaltzen dute

240. Nekazari-etxea. Haurtzaroa (ETL-013/001)

Maizter pobreak ziren; bi behi besterik ez zituzten. Gero baserri batera joan eta hirugarren behi bat lortu zuten. Bost senide ziren eta berak zortzi urte zituela hil zitzaien ama; bederatzi urteko arreba zaharrena etxeko lan guztiak egiten hasi zen orduan. Hamar urtetik goiti kanpoan lanean hasi ziren. 20 urte izan arte (soldadu joan zen arte), irabazten zuten diru guztia etxean ematen zuten anai-arrebek.

241. Afrikan soldadu 1 (ETL-013/002)

Gerraostean soldadu izan zen Afrikan, 32 hilabetez. Ez zuen gaitzik izan, baina hondarreko egunean gaixotu zen eta ezin izan zuen etxera itzuli beste soldaduekin. Hilabete bat gehiago gelditu behar izan zuen han. Instrukzioa eta guardiak egiten zituzten. Koartelaren barruan ez zuten beldurrik izaten, baina kanpora ateratzen baziren, mairuen beldur izaten ziren. Gaixo izan zeneko tarteari buruz mintzatzen da.

242. Afrikan soldadu 2 (ETL-013/003)

Afrikan zer jaten zuten azaltzen du: gosaltzeko kafesne pixka bat; eguerdian, opil koxkor bat (egun osorako ogia), eltzari pixka bat eta arrautza egosia edo bestelako jakiren bat. Gose izaten ziren; mendira joaten zirenean, arbolen azalak jaten zituen. Dutzak baziren

243. Eritasuna berriz (ETL-013/004)

Etxera itzuli ondoren, Afrikako medikuek esan zioten bezala, eritasun berak jo zion berriz oihanean lanean ari zela.

244. Afrikan soldadu 3 (ETL-013/005)

Soldadu joan zenean ez zekien erdaraz. Han erakutsi zieten eta azterketa gainditu zuen. Erraten zieten ez bazuten erdara ikasten, ez zietela lizentziarik emanen. Hasieran, soldadu katalan batek idazten zizkion gutunak.

245. Eskolara gutxi. Dotrina (ETL-013/006)

Eskolara gutxi joan zen, bizpahiru neguz bakarrik; ama hil zitzaienean ez ziren gehiago joan. Ordu erdiko bidea zuten. Dotrina goizez eta arratsaldez ematen zuten; eguneko lau galdera izaten zituzten

246. Baserriko lanak (ETL-013/008)

Baserrian egiten zituzten lanak azaltzen ditu: goizean behiak jetzi, behi eta zerriei bazka eman eta, gero, landara joaten ziren; han arto jorran aritzen ziren. Bazkaldu ondoren, berriz lan egitera. Sasoia zenean, sega hartuta, iratze egitera joaten ziren, edo gereziak hartzera...

247. Lurra prestatu eta erein (ETL-013/009)

Lurra prestatzeko, lehenengo, behiekin area pasatzen zuten eta gero zikinak biltzen zituzten. Ondoren brabana edo goldearekin iraultzen zuten lurra. Erresta eman, berriz area pasatu eta berriz erresta ematen zuten. Gero markatu, eskuz erein eta berriz tapatzen zuten. Maiatzean edo eriruan (ekainean) hasten ziren lurra lantzen. Aitzurrarekin jorratzen zuten.

248. Artoa (ETL-013/010)

Urrian artoa biltzen zuten. Arto-zuritzen aritzen zirenean aita kantatzen zuen.

249. Makiak (ETL-013/012)

Makiak anitz etxetan sartzen ziren eta harrapatzen zutena eramaten zuten. Goiko baserri batean denak lotu omen zituzten eta denetarik eraman zuten. Makiek herrietan laguntzaileak omen zituzten, informazioa izaten baitzuten: beste baserri batera joan ziren makiak eta dirua eskatu, baserritarrek ez zutela esan eta makiek "joan den astean behi bat saldu zenuten" esan zieten. Oihanean lanean zela, lau arma topatu zituen eta guardia zibilei eman zizkien.

250. Ura (ETL-013/013)

Urik ez zuten etxean. Aitzurrarekin bideratu zuen erreka ura ate ondoko azpil batera iristeko. Edateko ura, berriz, iturri batetik ekartzen zuten egunero "potixarekin". Leku freskuan altxatzen zituzten potixak. Emakumeek buruan eramaten zuten ura, burutearen gainean; gizonak, berriz, bizkarrean. Beraiek ez zuten teilatuko ura aprobetxatzen, baina baserri gehienetan putzu batean gordetzen zuten, ez baitzuten iturriko ondoan (anitz etxetan edateko ere erabiltzen zuten).

251. Argia (ETL-013/014)

Ez zuten argirik etxean. Frantziatik gasa ekarri zuten argia egiteko. Gero makina bat erosi zuten zentral txiki bat egiteko. Zortzi bonbilla paratu zituzten

252. Labea eta ogia (ETL-013/015)

Lehen etxe gehienetan labea izaten zen. Ogi handiak egiten zituzten eta ez ziren orain bezain azkar idortzen

253. Zapatak txandaka. Oinutsik. Oinetakoak (ETL-013/017)

Sosik ez zutela-eta, zapatak eta beste arropak txandaka ibiltzen zituzten. Adibidez, etxeko neska bat mezara joaten zen eta itzultzen zenean bere ahizpari ematen zizkion zapatak, mantelina edota soinekoa; eliza urrun bazegoen, bidean bertan egiten zuten aldaketa eta bestea oinutsik itzultzen zen baserrira. Jende anitz ibiltzen zen oinutsik garai hartan. Gehien erabiltzen ziren oinetakoak espartinak ziren; kubiartekin egindako abarkak eta egurrezko eskalapoinak (iltzekin) ere erabiltzen zituzten. Kalotxak eskalapoinen antzekoak ziren, baina hiru hankatxo zituzten; emakumeek anitz erabiltzen zituzten. Bortzegiak zapatariak egiten zituen eta garestiak ziren

254. Arropa gutxi (ETL-013/018)

Arropa gutxi zuten. Berak traje bakarra izan zuen, soldadu joateko egin zuena. Jertseak eta txapinak egiten zituzten ardien ilearekin.

255. Igande arratsaldeak (ETL-013/019)

Igande arratsaldetan zer egiten zuten azaltzen du. Inguruko baserrietako haurrak biltzen ziren eta etxe batean edo bestean jolasten ziren. Helduak ere biltzen ziren baserri batean eta akordeoiarekin parranda egiten zuten. Iluntzerako denak etxera joaten ziren.

256. Seme-alabak gauez etortzen zirela... (ETL-013/020)

Bera eta emaztea beldur izaten ziren seme-alabak gauez etxera itzultzen zirenean

257. Inauteriak. Emakume eta gizonen arteko diferentzia 1 (ETL-013/021)

Inauterietan mutilak etxez etxe ibiltzen ziren eskean eta afaria egiten zuten. Emakumeak arratsaldeko dantzaldira joaten ziren, baina iluntzerako etxera joan behar zuten; gizonak, berriz, beranduago joaten ziren beti.

258. Emakume eta gizonen arteko diferentzia 2 (ETL-013/022)

Lehen emakume eta gizonen arteko diferentzia izugarria zen. Baserritar bat igandero tabernan mozkortzen zen eta etxera itzultzen zenean emakumea jotzen zuen.

259. Meza (ETL-013/024)

Udan eta uso denboran lau meza izaten ziren. Lauretako meza, goizeko meza, hamarretakoa eta hamabitakoa. Igandeko mezara gutxienez joan behar zuten. Apezak nabaritzen zuen baten bat falta bazen.

260. Bazkoz egitea (ETL-013/026)

Bazkoz egitea derrigorrezkoa zen; apezarengana joan behar zuten txartela eske. 24 urte zituela, oihanean lanean, Otsagabian bazkoz egin zuen eta, gero, Etxalarko apezari erakutsi behar izan zion hango txartela.

261. Apezak eta emakumeak (ETL-013/027)

“Emakumeekin alde batera eta bestera moldatzen ziren apezak”. Labaingo apezari buruzko bertsoak: “Labaingo apez gaztiak seme bat omen du, aitak han meza eman ta semiak lagundu, ez da gaizki esana konprenitzen badu”.

262. Desertoreen gurasoak preso (ETL-013/028)

Erretoreak eta sekretarioak Frantzira desertore joaten zirenen gurasoak preso sartzen zituzten; dirua ere kentzen zieten.

263. Bertsoak: “Juzgadura deitu naute...” (ETL-013/030)

“Juzgadura deitu naute paper baten bila...” bertsoak kantatzen ditu.

264. Maizterrak etxe batetik bestera (ETL-013/032)

Maizter eta etxaldekoen arteko diferentziei buruz mintzatzen da. Maizterrak etxe batetik bestera bidaltzen zituzten lehen, “gauza tristea”; Sanmartinetan izaten zen aldaira (behiekin, karroan eta astoekin). Bere familiaren kasua azaltzen du: Sunbillatik joan zirenean, Etxalarko baserri batean sartu ziren, handik bota zituzten eta beste baserri batera joan behar izan zuten. Hirugarren baserrira joan zirenean, berriz, 20 urterako kontrata egin zieten bertako nagusiek (16 urtez bizi ziren hor).

265. Maizter eta nagusien arteko diferentziak (ETL-013/033)

Maizterrak ezin ziren alkate izan. “Maizterrak ez zuen indarrik, nagusia beti nagusia”. Baserri batzuetan, errenta beharrean, ekoizten zutenaren erdia eman behar zieten nagusiei

266. Argia nola egiten zuten (ETL-013/035)

Argia nola egiten zuten azaltzen du: kandelak erabiltzen zituzten, baziren farol batzuk goitik tximinia eta kider bat zutenak; karburuarekin ere egiten zen argia, baina sosa behar zen. Lastoari sua ematen zioten bera haurra zelarik.

267. Oihaneko lana (ETL-014/001)

Oihaneko lana nolakoa zen azaltzen du. Aizkora eta arpanarekin aritzen ziren. Kamainak makil eta iratzez eginak ziren. Neguan, argitu baino lehengo jaikitzen ziren eta ardoa eta ogi txigortua hartzen zuten. Lanean hasten ziren eta, hamarrak aldera, babak eta ogia jaten zituzten “rantxon”, denak eltzearen inguruan eta koilararekin. Egunekeo litro bat ardo izaten zuten, gehiago hartzen zuenari soldatatik deskontatzen zioten. Doneztebeko gizon, batzuetan, ez zen txabolara jaisten lo egiteko.

268. Txabolak (ETL-014/002)

Txabolak nolakoak ziren azaltzen du. Txabola erdian su ederra izaten zuten. Hamabost bat lagun izaten ziren txabolan.

269. 14 edo 15 ordu lanean (ETL-014/003)

Neguan, argitu aurretik ilundu arte egiten zuten lan: 14 edo 15 ordu.

270. Lan baldintzak. Soldata (ETL-014/004)

Iratin lanean ari zirela, langile batek bere herriko bestetara joateko baimena eskatu zion nagusiari, eta honek maleta hartzeko eta etxera joateko esan zion. Mendian lan egin zuen aurreneko aldian, 700 pezeta irabazi zituen bederatzi hilabetetan. Ez zuten asko irabazten, baina etxe bat erostea gaur egun baino errazagoa zen.

271. Aizkolari, “rantxero” eta itzainak (ETL-014/005)

“Rantxeroa” hamar lagun baino gehiago zirenean izaten zen. Aizkora eta arpanarekin botatzen zituzten arbolak. Egurra garraiatzeko mandoak, behiak edota idiak izaten ziren; lauzpabost behi edo idi pare izaten ziren koadrila bakoitzean eta beste horren beste itzain.

272. Ez zuten asegurririk (ETL-014/006)

Lan-istripua izaten zutenean edo eritzen zirenean, ez zuten asegurririk ezta soldatarik jasotzen. Batzuetan aseguru bakarra izaten zen hamar lagunentzako. Irungo ospitalera joan zenean, 200 pezeta ordaindu behar izan zituen plaka batengatik

273. Kablean lanean. Lan arriskutsua (ETL-014/007)

Egurra garraiatzeko kablean lanean ibiltzea oso arriskutsua zen. Egurra kablean nola paratzen zuten azaltzen du. Kamioiak ere eskuz kargatzen zituzten. Ikatz zakuak jaisteko ere erabiltzen zuten kablea. Kablea montatzen ari zirelarik, ardo eta ogia besterik ez zuten askaltzen; behin sardina zahar bat zortzi lagunen artean banatu zuten.

274. Oihanean lan egiteko arropa. Bizkar-larrua (ETL-014/008)

Oihanean lanean, neguan eta euria ari zuenean, bizkar-larrua erabiltzen zuten. Kapelu beltz hegaldunak ere erabiltzen zituzten. Zirak hasi zirenean okerrago ibiltzen ziren lan egiteko. Atorra eta jertse bat janzten zuten bizkar-larruaren azpian; bonbatxoak erabiltzen zituzten

275. Zurgingoa (ETL-014/009)

Zurgingo lanak egiten zituen; besteak beste, karroak, lerak eta teilatuak moldatu. Etxalarren piruak paratzen ari zirelarik, ataka guztiak egiteko enkargua egin zioten

276. Ilargiari eta itsasaldiari begiratu (ETL-014/010)

Arbolak botatzeko, ilargiari begiratzen zitzaion. Haritza “ilargi zaharrean” bota behar zen; pagoa, berriz, ilargi berrian (urik ez botatzeko eta zuri-zuria izateko); abetua (izeia), ilargi berrian eta urkia, ilargi zaharrean. Altza, maiatzeko ilargi berrian botatzea da hoberena. Itsasoaren mareei ere begiratzen zitzaion arbolak botatzeko.

277. Arbolak txertatu 1 (ETL-014/011)

Arbolak nola txertatzen diren azaltzen du. Ezkurrako bati gertatutakoa kontatzen du.

278. Ezkurraoen kontuak 1 (ETL-014/012)

Iruñera inntsentsu bila zihoala Ezkurra bati gertatutakoa kontatzen du.

279. Ezkurraoen kontuak 2 (ETL-014/013)

Ezkurra bat Iruñera mando-arrautzen bila joan zen. Hiru kalabaza handi eman zizkioten eta etxean hilabete batez iratzez estalita eduki zituen. Hilabetea pasatu zenean, "arrautzak" ikustera joan eta erbi bat ikusi zuen mendira joaten.

280. Arbolak txertatu 2 (ETL-014/015)

Besteak beste, mizpirak, aranak, udareak, gereziak eta sagarrak txertatzen ziren.

281. Kontrabandoko istorioak 1 (ETL-014/017)

Aldi batean, pakete eske joan ziren Frantziako aldera eta, muga pasatzerakoan, haiek konturatu ez baziren ere, guardiek ikusi zituzten. Paketeekin pasatu zirenean alto eman zieten eta berak ihes egitea lortu zuen. Izkututa zegoela, zarata entzun eta "eltzetzuak" (guardiak) ondoan zituela pentsatu zuen, baina eskapatutako beste lagun bat zen. Nagusiak, tiroak entzun ondoren, biak paketeekin ikusi zituenean arritu zen: "bizi al zarete?". Behin baino gehiagotan atera zitzaizkien "eltzetzuak" tiroka. Hondarreko aldera eltzetzuak erosten ziren; nagusiek egiten zituzten tratu hoiek.

282. Kontrabandoko istorioak 2 (ETL-014/018)

Igantziako Bentan entregatzen ohi zituzten paketeak. Aldi batean, eltzetzuak atera eta lasterka atera ziren denak; lagun bat putzuan sartu eta ia ito zen. Beste behin, Frantzia aldera alambrea eraman zuen bere anaiekin, garai hartan alemanak zeuden mugan eta, itzultzerakoan, mugan tiroketa eta koheteak entzun zituzten. Izan ere, kontrabandistaren bat eskapatzen zenean, guardiek koheteak botatzen zituzten hartutako norabidea erakusteko beste guardiei.

283. Kontrabandoko istorioak 3 (ETL-014/020)

Harrapatutako paketeak enkantean ateratzen zituzten.

284. Estraperloa, errazionamendua eta errekisak (ETL-014/021)

Frantziara ogi eske joaten ziren. Askotan eltzetzuek harrapatu eta ogirik gabe uzten zieten. Errazionamendua zegoen eta errotak ixten zituzten. Errekisak izaten ziren; ekoizten zutenaren (ilarra, artoa...) zati bat sindikatuak kentzen zien. Hori zela eta, jakiak izkutatzen zituzten (batzuek harkaitzetatik zintzilikatzen zituzten ilarrak-eta). Aziendak ere errekisatzen zituzten

285. Ogia saltzen zuten (ETL-014/022)

Koinatuak Frantziatik ogia ekartzen zuen eta inguruko bizpahiru baserriei saltzen zieten.

286. Aitari ematen zioten opiltxoa (ETL-014/023)

Gerra denboran ez zen ogirik, baina aitari, "erregimenagatik", opiltxo beltz bat ematen zioten.

287. Urtezaharra (ETL-014/024)

Urtezaharrean, kuadrilakoek ardi edo bildots errea jaten zuten. Ostatuan akordeoia izaten zen. Saskia hartuta, ela-ela kantatzen ibiltzen ziren mutikoak (neskak ez) baserriz baserri. Besteak beste, arrautzak, intxaurreak eta txingarra ematen zizkieten

288. Inauteak (ETL-014/025)

Garai batean inauteriak debekatu zituzten eta isilka ibiltzen ziren baserrietan. Behin, borda batean juerga egiten ari zirela, eltzetzu bikotea iritsi zen; kartzelara eramaneen zituztelakoan ikaratu ziren, baina eltzetzuak haiekin juerga egin zuten: "luego no digáis que hemos estado aquí...". Ez ziren gaur bezala moztortzen.

289. Satorrak harrapatu (ETL-014/027)

Satorra harrapatzen zuenari duro bat ematen zioten. Azeriaren larruaren truke, lauretan hogei duro; eta azkonarren larrua salduta, berrogei bat duro. Hudoa garestiena izaten zen, mila pezeta ematen zuten larruagatik. Azeria hiltzeko baimena hartu behar zen eta hogei duro ematen zen bakoitzeko. Otsorik ez zen.

290. Ehiza (ETL-014/029)

Usoara afizio handia zuten. Lehenbiziko usoa bederatzi urterekin hil zuen. Dhizarako afizio hagitz handia zuen.

291. Janak (ETL-015/001)

Opila esnea eta etxean eginiko gasnarekin. Ilarra, odolki, xingar. Asteko janak eta igandetakoak. Merenduak

292. Merenduak eta afariak (ETL-015/002)

Nata azukrearekin merendatzeko. Bakailao aunitz merkea bai zen. Arboletako frutak.

293. Frigorifikorik ez (ETL-015/003)

Leihoetan uzten zen zintzilika edo plateretan Beroa egiten zuenean ere leihoetan baina beti ere leku freskoan.

294. Ez zen dirurik (ETL-015/005)

Arrautza gutxi egoten zen. Ez zegoen dirurik baina oilaskoak eta saltzen zituzten eta diru pixka bat edo trukean azukrea edo malta jasotzen zuten.

295. Olio oso garestia (ETL-015/006)

Oso garestia zenez olio ez zen ibiltzen seboa baizik. Harategitik ekartzen zuten seboa. Aitak harategian lan egiten zuen eta jornal osoa ordaindu beharrean haragi pixka bat, seboa eta diru gutxi ematen zioten.

296. Fruituak (ETL-015/008)

Gaztainak, intxaurreak, urrak...

297. Gaztetan lanera (ETL-015/010)

“Bederatzi urterekin hasi nintzen haurtzain arratsaldetan. Hilabetean hogei pezeta irabazten nituen.” Amari entregatzen zioten dirua.

298. Unai ibili zen (ETL-015/012)

Behien aitzinean joaten zen makila batekin. Neguan eskolara.

299. Hamalau urtetan neskato joan zen. (ETL-015/014)

Etxeko lanak egiten zituen. Guztia garbitu behar zuen. Ormazko frigorifiko bat egoten zen etxe hartan eta muki bat egiten zitzaion ormari. Hura garbitu behar zuen. Suaren txapa berriz ozpinarekin garbitu behar zen, lixa pasatu eta “blanco española” eman distiratsu uzteko.

300. Ur beroa (ETL-015/015)

Neskato zegoen etxean bazen ur beroa baina Etxalarko baserrian ez, hemen pozaleak erabiltzen zituzten, beheko suan berotutako urarekin.

301. Xaboia etxean (ETL-015/017)

Berak ez du egin baina oroitzen du amak nola egiten zuen.

302. Zilarra garbitu (ETL-015/019)

Asperon eta blanco española eman ondoren trapu batekin zilarrezko mahai tresnei ateratzen zien dirdira.

303. Neskato lansaria eta uniformeak (ETL-015/021)

Hilabetean 25 duro irabazten zituen. Kofiarik gabeko uniforme urdin eta zuria janzten zuen.

304. “Interna” egon zen neskato (ETL-015/022)

Astean behin libratzen zuen lauetatik hamarretara. Pasioan ibiltzera ateratzen zen. Irungo udaletxe ondoan zegoen lanean. Kanpoko lagunak ere egin zituen, Errioxakoak eta.

305. Hondarribira bailera (ETL-015/024)

Oinez joaten ziren Hondarribiko dantzaldira. Oporrak ere izaten zituen 15 egun eta ordainduak. Aduana agentea zen nagusia.

306. Irungo Hotelean lanean (ETL-015/026)

Hoteleko etxeko andreak ere lana gain begiratzen zien ondo egin ote zuen jakiteko. Hogeita hamar gelako hotel bat zen xx.

307. Gaztetako ibilerak (ETL-015/028)

Mezara joan eta handik pasera joaten ziren. Plazan gramofono batean musika jartzen zuten.

308. Dantzaldiak. Ilun-ezkila (ETL-015/030)

Ilun-ezkilak jotzen zuenean dantzatzetik erretiratu behar zuten neskek bestela bekatua zen.

309. Bataioak eta hileta elizkizunak (ETL-015/032)

Lehenengo egunean bataiatu. Hiletak berriz segun eta zenbat diru zuen hildakoak. Gurutzeak,erresponsoak, kandela kopurua...

310. Ama ezkongabeak 1 (ETL-015/034)

Gehienek inklusara eramaten zituzten. Emakumeek krimen antzekoz akusatzen omen zituzten ezkongabe haurdun gelditzeagatik. Apaizek omen zuten errua. Horiei, apaizei, esango omen zien orain, ea zer gertatzen den ezkongabetasuna et amatasunarekin orain.

311. Ama ezkongabeak 2 (ETL-015/036)

Baserrian lanean atera izan zuen bere amak bizia izeba batekin.

312. Ama ezkongabeak 3 (ETL-015/037)

Gauetz bataiatzen zituzten bekatua zelako.

313. Ama ezkongabeak 4 (ETL-015/038)

Txikia zelarik ere sentitzen zuen batzuengan mespretxa ama ezkongabearen alaba izateagatik eta berdina gertatzen zitzaien zerbait pobreagoak zirenei.

314. Ama ezkongabeak 5 (ETL-015/039)

Txokolatada batetik kaleratua izan zen haurren aurrean.

315. Haurtzaroko lanak (ETL-015/041)

Ama joaten zen lanera eta anai arreba txikiak zaintzen zituen.

316. Erditzeak etxean 1 (ETL-015/043)

Baserriko andre bat ibiltzen zen laguntzen.-

317. Erditzeak etxean 2. Elizan sartzea (ETL-015/045)

Erditu ondoren elizara joan behar zen purifikatzera. Ateratzen baziren bekatu zen. Nahita ezko zer edo zer bazen teila bat paratu behar zuten buru gainean.

318. Erditzeak etxean 3. Oilasko salda (ETL-015/047)

Oilasko salda amari gorputza garbitzeko.

319. Bataioak Etxalarren (ETL-015/049)

Ur bedeinkatua botatzen zuten gainetik. Amautxi eta atautxik eramaten zuten haurra bataiora.

320. Bataioak Etxalarren 2 (ETL-015/050)

Jaio eta berehala bataiatzen ziren haurrak lehenago hil eta linbora ez zitezen joan.

321. Ezkontzak (ETL-015/052)

Amaren ezkontzaz entzunda duena ezko ondoan festa handia egin zutela Akordeoilaria ekarri omen zuten eta giro aparta izan zutela. Bazkaria eta dena etxean egin zutela. Beltzez ezkontzen omen ziren eta aurreko haurren bat bazuten, kasu honetan hala zen, goizeko zazpitan egiten zen elizkizuna.

322. Lutoa (ETL-015/054)

Gizonek ezkerreko poltsikoan zapi beltz bat eramaten zuten. Emakumeak lehenengo urtea erabat beltzez eta bigarrena kolore morez edo beltz eta zuriz.

323. Lutoko arropak (ETL-015/055)

Arropa berria egin behar zuten edo tindatu Suan tindatzen zuten bueltaka. Haurrak zuri beltzez. Amautxi edo atautxirenak gutxiago irausten zuen ama edo aitarenak baino.

324. Apaiza pasatzean beatikoarekin (ETL-015/057)

Belaunika ipini behar zinen apaiza beatikoarekin zure aurretik pasatzean eta aitagurea errezatu. Arimak salbatzeko egiten omen zen hori, zerura joateko.

325. Gaubelak (ETL-015/059)

Bizilagunak hiltzean errosarioa errezatzen pasatzen zuten gaia emakumeek. Kafea eta pastelak ematen ziren.

326. Hiletak (ETL-015/061)

Norbait hiltzean meza bat egiten zen eta zortzi egunean "funerala". Kandelak eramaten ziren. Eliza atarian ere pastelak eta moskatel kopak banatzen ziren. Etxean berriz bazkaria ematen zen.

327. Lehengo jendea gogorragoa zen (ETL-015/063)

"Ez dakit miseriari ohitua zegoen baina jendea gogorragoa zen. Gerra ondoa zen". Egoeraren laburpen bat.

328. Maizterrak (ETL-015/065)

Beldurrez egoten ziren, etxea ez zen inoiz beraia izaten. Maizter baten historia kontatzen du. Kanporatuak izan behar zuten ezer ere ordaindu gabe. Maizterrek abokatua hartu eta irabazi zuten.

329. Amaren lanak (ETL-015/067)

Etxeak garbitu, baratzeak zaindu, egur salmentak aita eta amak. Interina ere aritu izan zen.

330. Lan gogorrak etxeetan (ETL-015/069)

Belauniko lurra garbitu zepiloarekin, argizaria eman... Komunak garbitu

331. Lehengo komunak (ETL-015/071)

Ez ziren ezer ez, komuna bakarrik eta ukuiluko gorotzera erortzen ziren egin beharrak. "Garbitzeko berriz beheko suan ura berotu eta zink baldeetan garbitzen ginen. Gure amak beti zuen kolonia igandetan mezara kolonia botata joateko"

332. Lehengo arropak (ETL-015/072)

Etxean josten zituzten soinekoak nolakoak ziren. Zapatilei pasta zuri bat ematen zieten. Mezara aski politak joaten ziren.

333. Ez zen luxurik (ETL-015/074)

Sardina zahar bat birentzat jaten ibiliak direla kontatu izan dio bizilagunak. Herriaren gehiengoa maizterra zen etxe eta lurrez.

334. Dendan apuntatuz ibiltzen ziren (ETL-015/076)

Dirurik ez zutenez dendan zerrendan apuntatzen zieten zor zena.

335. Amak ikusiak (ETL-015/078)

Ama eta bere anaiak izeba batek hazi zituen umezurtz geratu zirelako oso gazte. Bi anaiek gerrara joan behar izan zuten. Handik bueltan, anaietako batek andregaiarekin izebaren etxean bizi behar zuela eta

336. Haur jolasak (ETL-015/080)

“Guardas y ladrones”. Erderaz jolasten zuten. Tabak. Kanikak zuloan sartzen.

337. Dena erdaraz (ETL-015/082)

Baserrian euskaraz egiten zuten baina eskolan hasi ezkerro eta karrikan dena erdaraz. Ez zuten euskaraz egiten uzten.

338. Soka saltoa (ETL-015/084)

Bi bikoa. Jauzian bi aldiz pasatzen zen soka hankapetik.

339. Neskak esku pilotan (ETL-015/086)

Sarako lehengusinak kopak irabaziak ditu

340. Lehenengo kotxeak (ETL-015/087)

Herrian bi kotxe zeuden bakarrik. Norenak ziren kontatzen ditu eta erabilerak.

341. Autobus linea eta trena (ETL-015/089)

Etxalartik Lesakara eta handik linea hartzen zuten. Tranbia ere hartzen zuten.

342. Arraina Hondarribitik (ETL-015/090)

Arraina Hondarribiko andre batek ekartzen zuen saltzeko. Gero oloa edo ilarra eramaten zuen bueltan. Tranbia erabiltzen zuen joan etorrirako.

343. Trapitxerak eta kontrabandistak (ETL-015/092)

Irun eta Hendaia artean gauzak eraman eta ekartzen zituztenak. Kantitate txikian estraperloa egiten zituena trapitxera zen eta kantitate handiak mugitzen zituena berriz kontrabandista.

344. Sacamantecas (ETL-015/094)

Gizon bat mojaz janzten zen. Eskuetan ikusten zen gizona zela. Jendea hiltzen zuten odola atera eta aberatsei saltzeko.

345. Zugarramurdiko sorginak (ETL-015/095)

Beldurra izaten zioten sorginei haur zirelarik. Iluntzen etxera joaten ziren Zugarramurdiko sorginen beldur. Irriak egiten omen zituzten sorginek. Sorginen mitoak eta benetako sorginak.

346. “Ela-Ela” joan (ETL-015/097)

Arrautzak, xingarra eta horrelakoak ematen zituzten baserrietan.

347. Erregetako opariak (ETL-015/098)

“Erregetan intxaurrak, pikuak... Noizbait trapuzko panpina bat egin zidan norbaitek”

348. Etxalarko usategiak eta Jose María Aznar (ETL-015/100)

Usategietara jende aberatsa etortzen zen. Aznar ere ibilia da, haren atautxi hemengoa zen eta hemen lurperatua da. Behin Aznar etorri zen eta ondoren kexatu egin zen alkateak ez ziolako ongi etorririk egin. Alkateak publikoki esan omen zuen ez zuela abisatu. Ondoren gutun bat idatzi zion alkateak Espainiarrari esanez Etxalarren ez zutela haren beharrik, hura gabe ere bizi zirela. Herriko txutxu-mutxu bat izan zen elizako kalefakzioa Aznarren familiak ordaindu zuen edo ez.

349. Etxeko erremedioak 1 (ETL-015/102)

Belarrak ziren etxeko erremedioak. Xixareentzat lore hori txiki bat, xixare belarra. Baina ez du nola nahi eragiten xixareengan. Ama ia ito zen xixareekin eta azkenean medikuaren xarabe bat hartuta joan zitzaizkion.

350. Etxeko erremedioak 2 (ETL-015/104)

“Tipula zartaginean pasatu eta zornia kentzen zion tibesoari. “

351. Etxeko erremedioak 3 (ETL-015/106)

Eztarri eta hagineko mina. Belarriko mina irina eta kamomilarekin...

352. Etxeko erremedioak 4 (ETL-015/108)

Ohe azpian menta belarra botatzen zen kukuxurik ez sartzeko.

353. Zer jaten zuten. Postreak (ETL-016/002)

Astez batez ere ilarra jaten zuten eta igandetan garbantzua. Gosaltzeko kafea edo kafesnea hartzen zuten. Bazkaltzeko beti eltzaria izaten zuten (ilar gorria) eta, urtero bi zerri hiltzen zituztenez, txingarra patata frijituekin. Bazkotan, bildotsa jaten zuten. Zerri zangoak ere jaten zituzten. Budina lurreko suan, pazian, egiten zuten (ura, esnea, arrautza, azukrea eta kanela); budina egina zegoen jakiteko zer egiten zuten azaltzen du. Natillak ere lurreko suan egiten zituzten.

354. Bestetako janaria 1 (ETL-016/004)

Bestetan oilaskoa, bildotsa edo ardi zaharra jaten zen.

355. Oilaskoak (ETL-016/005)

Oilasko batzuk etxean jaten ziren, baina gehienak saltzen ziren. Tratanteek Sanpedrotarako (Irungo bestetarako) arrautza eta oilasko anitz erosten zituzten.

356. Bestetako janaria 2 (ETL-016/006)

Oilaskoa, bildotsa edo ardi zaharraz gain, garbantzuak, oilo salda, budina eta "arroz con leche" (arroz-esnea) jaten zuten bestetan.

357. Xuri-beltzak (ETL-016/007)

Xuri-beltzak nola egiten ziren azaltzen du: tripak garbitu eta egosi egiten ziren. Tipula, perrexila eta arrautzak nahasita egiten ziren "xuriak". Ostiraletan mataderian (hiltegian) aratxeak hiltzen zituzten eta handik odola ekartzen zuten; beltzak egiteko odola frijitzen zuten tomatearekin. Gerraostean, hiltegian urina erosten zuten, xaboia egiteko.

358. Zerri-zangoak (ETL-016/008)

Zerri-zangoak egosten zituzten, arrautzaztatu eta kazolan egin. Inauteetan jateko eta kanpoko lanak egiten zituztenerako altxatzen zituzten.

359. Errege eguneko opila (ETL-016/009)

Amatxik opil berezia egiten zuen Errege egunean. Ogi irina eta arto irina nahasten zituen eta aro forma ematen zion. Batzuetan arrautza egosia jartzen zuten erdian.

360. Sagararak, sagardoa eta pitarra (ETL-016/011)

Etxe eta baserri anitzetan sagardoa egiten zen. Dolare eta barrikak izaten zituzten. Bere amak pitarra egiten zuen. Sagar klase anitz izaten ziren garai hartan: lurde-sagarra, sagar-zabala, mandaburuak, udare-sagarra eta abar. Sagardoa nola egiten zen azaltzen du. Sagar zatiak zintzilikatzen zituzten idortzeko.

361. Arropa garbitu. Lixiba (ETL-016/013)

Arropa erreka bazterretan garbitzen zuten; baziren harri bereziak, belauniko paratzeko kaxak eta bi hankako bankuak. Neguan, euria edota elurra ari bazuen, zaku bat paratzen zuten buruan; ur hotza zela-eta, eskuetan oinazea eta ospelak izaten zituzten. Labaderoa ere bazen, baina ez ziren haraino joaten. Lixiba egosten zuten: barrika batean arropa paratzen zuten, gainean zaku bat hautsarekin eta ur irakina botatzen aritzen ziren. Usain ona izaten zuen. Gero ur hori aprobetxatzen zuten, besteak beste, aurpegia eta ilea garbitzeko.

362. Xaboia (ETL-016/015)

Xaboia nola egiten zuten azaltzen du.

363. Mondongera. Odolkiak (ETL-016/017)

Mondongeraren lana azaltzen du. Bezperan tipula eta arroza egosten zuen. Odolkiei hainbat espezia botatzen zizkien. Hesteak betetzeko onil berezi bat erabiltzen zuen.

364. Gantxigorra , birika eta lukainka (ETL-016/018)

Gantxigorra zer zen azaltzen du. Zerriaren urinatik ateratzen zena xehetzen zen. Pastelak ere egiten ziren gantxigorrarekin. Birika lukainka baino arruntagoa zen. Xehetzeko makina izan aurretik, aizkora erabiltzen zuten. Adobo nahikoa zuen jakiteko pixka bat frijitzen zuten eta probatu.

365. Erremedioak 1 (ETL-016/020)

Zizareendako baratxuriak hari batean sartu eta lepokoa egiten zutela aditu du; baina bere amak baratxuriak eskumuturretan igurtzen zituen. Anginendako, hauts beroa. Erredurendako, behien kaka. Aireentzat, espartin beroa. Belarriko minarendako, olio. Begiko betorrari "mitxindra" erraten diote. Mingainean legarra ateratzen denean, giltza pasatu. Hagineko minarendako, anis paratu. Sudurreko odola gelditzeko, perrexila sartu sudurrean. Ebakien odola gelditzeko, armiarma-sarea paratu. Bere amak ogi papur eta ardoarekin enplastua egiten zuen.

366. Erremedioak 2 (ETL-016/022)

Bere aitatzik sekulako zauria zuen zangoan eta ez zitzaion deusekin sendatzen; pobre batek erran omen zion mutiko txiki baten pixarekin garbitzeko eta ondoren kuku-belarra paratzeko.

367. Sinesmenak 1 (ETL-016/024)

Haurra zela, bareak hozka egiten zionean, hiru harri altxatu eta listua botatzen zuen.

368. Sinesmenak 2 (ETL-016/026)

Bere aitatzik gangarabilak zeinaten zituen. Eskuan gatza hartu eta kokotsa azpian paratzen zuen honako hau erranez: "bederatztitik zortzi, zortzitik zazpi, zazpitan sei, seitikan bortz, bortzitan lau, lautikan hiru, hirutik bi, bitikan bat, gangailak zirt zart" eta gatza sutara botatzen zuen. Bederatzi egunez, bederatziurrena, egiten zuen.

369. San Juan Xar (ETL-016/028)

Jendea San Juan Xarrera joan, trapu bat garbitu, igurtzi eta gero botatzen zuten.

370. San Juan eguna (ETL-016/030)

San Juan egunean belarrak bedeinkatzen ziren

371. Elorri zuria bedeinkatu. Santa Barbarari errezatu (ETL-016/031)

Maiatzaren 3an Santa Kruz ermitara joaten ziren eta elorri zuria bedeinkatzen zen. Gero, erramuak bezala, edozein tokitan paratzen zituzten. Trumoiak zirela, bela bedeinkatuak pizten zituzten, Santa Barbarari errezatzen zioten ("Santa Bárbara bendita...") eta erramuak erre.

372. Elizan sartzea (ETL-016/032)

Elizan sartzea zer zen azaltzen du. Emakumeek, haurra izan ondoren, elizara joan behar zuten kalera ateratzen ziren aurreneko aldian. Han apezak errezu bereziak egiten zituen eta emakumeak bela eraman behar zuen. Haurra izan

eta eliza sartu bitartean emakumea ezin zen kalera irten, hala ere, egin behar bazuen, buruan teila paratuta atera behar zuen

373. Otoitzak. Ogiari musu eman (ETL-016/034)

Zer errezatzen zuten azaltzen du. Bazkatzeko denboran aitarena egin eta ogiari musu ematen zioten. Ogia lurrera erortzen bazen ere, musu eman eta aitarena egin behar zen.

374. Katua etxera laketzeko (ETL-016/035)

Baserri batetik katua eramaten zutenean eta etxera laketzeko, "bixkondo" (sartana) barrenean paratzen zuten edo suri buelta eman.

375. Sorginak 1 (ETL-016/036)

Gauetz, behar ez zen tenorean oilarra kukurruku sumatzen bazen, sorginak inguruan zirela esaten zen.

376. Maizterrak eta etxaldekoak (ETL-017/001)

Maizter eta etxaldekoen artean diferentziak ziren. Beraiek maizterrak ziren. Gerra denboran dirua, artoa eta ilarra eman behar zioten nagusiari. San Migel edo San Martinen ordaintzen zen errenta eta aldaira eguna orduan izaten zen.

377. Santa Kruz (ETL-017/002)

Santa Cruz ermitara joaten ziren kantari, maiatzaren 3an eta irailaren 14an.

378. San Markos (ETL-017/004)

San Markos egunean, apezak bedeinkazioak egiten zituen toki ezberdinetan.

379. San Migel (ETL-017/006)

San Migel mandoz ekartzen zuten. Herrian pasatzen zuten gaua. Goizean, bedeinkazioak egiten zituzten eliza atarian. Biharamunean, udalak bazkaria egiten zuen.

380. Sorginak 2 (ETL-017/008)

Bere aitatzik erraten zien ermitako zubi gainean sorginak izaten omen zirela, baina berak ez zituela inoiz ikusten.

381. Apezek ebanjelioak leitzen zituzten (ETL-017/009)

Pertsona ahulei edo inuzenteei apezek ebanjelioak leitzen zizkieten.

382. Apezen errezoak erauntsia bidaltzeko (ETL-017/010)

Apezek errezoak egitera ateratzen ziren erauntsia bidaltzeko.

383. Oiloa, alorren bedeinkazioaren truke (ETL-017/012)

Apezak baserriz baserri ibiltzen ziren alorrak bedeinkatzen eta gero baserritarrek oilo bat ematen zioten.

384. Jostetan. Zotz egiteko (ETL-017/013)

Jostetan, zotz egiteko erraten zutena: "xirristi mirrixti gerrena plast olio-zopa kikili salda urrup edan edo klik ikimilikiliklik"

385. Eskola (ETL-017/014)

Eskolara gutxi joan zen. Zortzi anai-arrebetatik zaharrena zenez, txikiena zaintzen aritzen zen beti.

386. Errosarioa (ETL-017/016)

Errosarioa egunero errezatzen zen. Bortz misterioko eta hamabortzeko errosarioak izaten ziren. Ortziraletan eta asteazkenetan ezberdina izaten zen.

387. Ezkilak (ETL-017/017)

Lehen, ostriraletan eta larunbatetan, arratsaldeko hiruretan (Jesukristo hil omen zen orduan) ezkilak jotzen zituzten. Baziren goiz-ezkila, eguerdiko ezkila eta ilun-ezkila ere. Udako ezkilak eta neguko ezkilak ezberdinak ziren. Alorretan lanean aritzen zirela, ezkila entzuten zutenean, angelusa errezatzen zuten. Hil-ezkila izaten zen baita ere.

388. Zenberena (ETL-018/001)

Zenberena nola egiten den azaltzen du. Gazura paratu egosten eta irakiten hasten denean goiti ateratzen dena koilara batekin bildu eta azpil batera bota

389. Gazura alorrean edateko (ETL-018/003)

Gazura egosita edaten zuten. Landara pitxerretan eramaten zuten, arto-jorran ari zirenentzat. Ez zuten alorrean bazkaltzen, etxera itzultzen ziren.

390. Komuna (ETL-018/005)

Komuna beti izan dute. Komuna hutsa zen.

391. Ilargi eta izarrei begiratu eguraldia igartzeko (ETL-018/007)

Ilargi eta izarrei begiratuta, eguraldia igar daiteke. Izar iheskorren norabidea ikusita, biharamunean haizea nondik etorriko den jakin daiteke. Ilargiak aro bat du, baina bigarren bat duenean, kontuz, euria dator. Izarrak bakan direlarik, idorra. Goiz gorri, arrats euri.

392. Animaliei begiratu eguraldia igartzeko (ETL-018/008)

Animaliei begiratuta, eguraldia igar daiteke. Armiarmak ateratzen badira, euria. Aziendak belaian joka eta dar-dar, eguraldi aldaketa. Zizareak goiti ateratzen badira, trumoiak eta beheiti ateratzen badira, euria. Sugeak ateratzen badira, tormenta. Okilak kantatzen badu, euria. Katuek eta zakurrek muturra garbitu eta hanka aurpegira eramaten badute, euria. Neguan, ardiak, behiak eta behorrak menditik jaisten badira, eguraldi txarra (hotza).

393. Eguraldia igartzeko bestelako sinesmenak 1 (ETL-018/010)

Eguraldia igartzeko bestelako sinesmenak. Zorrotzailearen deia entzunda, euria. Hezurretako mina izanda, eguraldi aldaketa.

394. Eguraldia igartzeko bestelako sinesmenak 2 (ETL-018/012)

Eguraldia igartzeko bestelako sinesmenak. Paretetan hezetasuna baldin bada, eguraldi aldaketa. Mendebaleko haizea heldu bada, euria.

395. Haize klaseak (ETL-018/014)

Haize klaseak. Haize hegoa edo ero-haizea, iduzki-haizea, ipar-haizea, norte-haizea, beheko haizea, zehar-haizea, "akeda" (?) (haize-zurrumbiloa).

396. Ortzederra eta azeri-ezkontza (ETL-018/016)

Ostadarrari ortzederra deitzen diote; bi daudenean, berriz, azeri-ezkontza. Ortzederrak ura hartzen du.

397. Ilargiari begiratu (ETL-018/017)

Zerria ilargi-zaharrea hiltzen zuten. Arbolak botatzeko orduan ilargiak eragin handia duela azaltzen du. Erein eta landatu ilargi-zaharra egiten da. Ilea mozteko ere ilargi-zaharra omen da hoberena. Aziendari arra emateko eta ongarria ateratzeko ere kontutan hartzen da ilargia.

398. Gaitzak sendatzeko sinesmenak (ETL-018/018)

Gaitz fuerteak mezak aterata sendatzen direla esaten zen. Esate baterako, "estropesia" (gorputza puztu edo hazten omen da) sendatzeko meza ateratzen zen eta gerrian "trentzilla" paratu behar zen, hiru korapilo eginda. Horretaz gain, mahai gainea, zapi zuri baten gainea, moskatel botila eta bederatzi bizkotxo ateratzen ziren; bederatzi kopa moskatel edan behar ziren egunero ordu berean. Azkenik, San Estropo egunean dena erre behar zen. Igantziko Elvirarengana joaten ziren gaitza sendatzeko. Medikuen jarrerari buruz aritzen da.

399. Sorginak 1 (ETL-018/020)

Sorginen istorio anitz kontatzen ditu. Sunbillako errekan izaten zen sorginen erregina. Sorginak ateratzen zirenean zer esan eta zer egin behar zen azaltzen du. Sorginek jendea eritzen zuten. Sorginkeria sendatu behar zen hil aurretik. Azienden itxura hartzen zuten sorginek. Mezak aterata sorginkeriak amaitzen ohi ziren.

400. Sorginak 2 (ETL-018/021)

Sorgina jotzen denean, beste emakume bat ateratzen da eta eritzen da. Sorginengandik babesteko behatzak gurutzatu behar dira. Gauaz, behar ez zen tenorean oilarra entzuten zutenean, gatza botatzen zuten. Sorginak bokatak egiten aritzen omen ziren beheko bordan. Beltzez tapatuta ibiltzen ziren sorginak. Sorginak kotxean joaten dira leku batetik bestera. Sorginak Akeler parajea egoten ziren.

401. Apezak erauntsia mendira bota (ETL-018/023)

Erauntsia heldu zelarik Don Martin apezak errezoa egiten zuen belauniko eta mendira botatzen zuen erauntsia. Etxe batean ezin zuten lorik egin txepetxak beti kantari ari zirelako eta apezak beheiti bidali zituen.

402. San Juan. Trumoiak direlarik (ETL-018/025)

San Juan bezperan sua egiten zuten. San Juanen bedeinkatutako erramuak sutara botatzen diratrumoiak direlarik; aizkora ere ahoz goiti paratu behar datrumoiak direnean.

403. Erremedioak 1 (ETL-018/027)

Etxeko erremedioak. Zintzurreko minarendako, arto irin beroa edo hauts beroa paratzen zuten. Buruko minarendako, kamamila. Haginetako minarendako, hauts beroa (zapi batean). Erredurendako, behi kaka

404. Erremedioak 2 (ETL-018/029)

Min horiarendako (gibeleko eritasun bat), zorriak jan (bederatzi egunez). Buruko minarendako, karraskila egosita. Giharreko minarendako, olio beroa. Handitsuetarako, enplastu bi: basma belarrarekin egindako tortilla edo baratxuri frijitua, argizaria, erresina eta olio. Mingainako legarrarendako, giltza pasatu. Kalitxendako, gatza kaxa batean sartu eta gero bota. Erredurentzako, kisua olioarekin. Gangarabilendako, beroa. Sugeen ausikiendako, salbea aldrebez errezatzen da.

405. Erremedioak 3 (ETL-018/030)

Azienden zingirioa sendatzeko, errezatzen zen. Emakume batek egiten zituen otoitz horiek. Behiei odola kentzen zieten "erraiatzeko"; tratante batek egiten zuen. Behiak erditzen zirelarik litro bat ardo ematen zieten, bizkortzeko.

406. Eskolan hiru urte (ETL-019/001)

Hiru urtez eta neguko hiru hilabeteetan joan zen eskolara. Abendutik otsailera.

407. Eskolara joan aitzin (ETL-019/002)

Behiak jetzi eta 12 litroko esne-ontzia ordu bateko bidea egiten zuen. Behin baino gehiagotan euriak harrapatu izan zuen eta eskolara busti bustia joan.

408. Zer ikasi zenuen eskolan? (ETL-019/003)

"Zer ikasiko genuen, sumar y restar"

409. Espainola noiz ikasi zuen (ETL-019/005)

Gerra garaian Falangea etorri zenean. Soldaduak ere asko etorri ziren gerraondoan. Zein arropa ibiltzen zituzten deskribatzen du. Falangeak gerra hasi zen egunean etorri ziren. "El 18 de julio, cara el sol kantari. Hura de ongi ikasi nuen! Boof! Jesus Maria!"

410. 3.000 gizon gerra ondoan (ETL-019/007)

Soldadu eta lanera ekarritakoen artean 3000 soldadu egon ziren herrian.

411. Etxe huts guztiak hartu zituzten (ETL-019/009)

Etxe huts guztiak hartu zituzten eta bordak ere bai. Jatekorik ez zuten etxeetatik hartzen baina egurra herriak ematen zien. Gela hutsak zeuden etxeetan berriz mandoak egoten ziren alferez eta generalak. Hainbat etxeren izenak aipatzen ditu bertan militarrek egon zirenak. Berain etxean ez zen inor ere sartu beterik baitzen.

412. Semeak alde egin eta gurasoak kartzelara (ETL-019/011)

Mutil gazte bat frentetik baimenarekin etxera etorri zenean Frantziara alde egin zuen eta ez zen bigarren aldiz frentera joan. Falangeek gurasoak kartzelaratu zituzten orduan.

413. Rekisen istorio beltzak (ETL-019/013)

Kartzelan egon zen andre horri, ondoren rekisa garaian bi behirik onenak markatu zizkion gero Aznarren atzetik ibiltzen zen "tipo" batek. Patatak eta denetarik eramaten zituzten.

414. Bazekiten zenbat biltzen zenuen (ETL-019/015)

Jakiten zutenez zenbat terreno zenuen kalkulatzeko gutxi gora behera zenbat biltzen zenuen. Jendeak ez zuen gordetzen horregatik.

415. Haurra jaiotzean (ETL-019/017)

Kandela eta zapi arizkoa eraman behar ziren elizara. Haurra jaiotzean elizan sartzea 30 duro kobratzen zuen apaizak. Haurra elizatik pasa baino lehen emakumea ezin zen etxetik atera bestela teila bat ipini behar zuen buru gainean. Maritxuk ez du inoiz teilarik patu buruan aditu izan du kontu hori baina ez du inoiz ere ez ikusi.

416. Ama ezkongabeak 1 (ETL-019/019)

Ama ezkongabeak haurra izandakoan ilarraren gainean ez daki zenbat denboran egon behar izaten zuten.

417. Ezkongabeen haurrak (ETL-019/021)

Arratsean ateratzen zituzten pasera. Egunez ezin izaten ziren atera.

418. Ama ezkongabeak 2 (ETL-019/022)

Asko ez ziren ezkontzen, eta Ameriketara edo Frantziara alde egiten zuten.

419. Esposatzen ziren ama ezkongabeak (ETL-019/024)

Ezin ziren zuriz ezkondu. Maritxuren eta denboran baina ez zen inor ere zuriz ezkondu. (Gerraondoa) Ama ezkongabeak beste aldare txikian ezkontzen zituzten ondoren.

420. Betirako gaizki ikusiak ama ezkongabeak (ETL-019/026)

Gaizki begiratu eta.. orain ez da ezer gertatzen baina...

421. Dotrina eta txartelak (ETL-019/028)

Dotrina ez bazenuen ongi ikasten txartelak batzuk jasotzen zenituen.

422. Purgatorioa eta linboa (ETL-019/030)

Bazkoz konplitu gabeko haurrak linboan lurperatzen ziren eta purgatoriora joaten ziren. Purgatorioan leporaino olio edo kaka egoten zela esaten zuten. Maritxuk dio ea non diren orain infernuak eta kontuak zirela.

423. Apaizak aski zerriak ziren (ETL-019/032)

Hogeita bost urtetan ikusi zuen hori. Galtza nailonak ekarri zizkion lehengusu batek Terranovatik. Amabirgina egunean jantzi zituen eta apaizak galtzerdirik ez zuela esaten zion eta Maritxuk baietz kontra egin zion. Hori izan zuen herriko erretoreari eginiko lehen planteia.

424. Apaiza mozkorturik (ETL-019/033)

Apaiza mozkorturik joan zen errosarioa erreztzera. Ondoren Herriko neska polit bati musu eman nahian aurkitu zuen Maritxuk apaiza.

425. Elizarako arropak (ETL-019/035)

Soina mauka luzea jantzi behar zen elizara joateko. Bestela, "manguito"-ak jantzi behar zenituen. Mantelina ere nahitaezkoa zen. Eskote itxiak.

426. Buldak (ETL-019/037)

Hiru pezeta eta erdi edo bi pezeta eta erdi balio zituzten papertxo batzuk saltzen zituen apaizak. Bi eta erdikoak erosten zituenak bijiliaren erdia egiten zuen. Hiru eta erdi ordaintzen zituenak berriz, ez zuen bijiliarik zertan egin ostiral santuan izan ezik. Guk berriz urte guztian bijilia egin behar genuen, sardina zaharra erreta!"

427. Apaizak erregeak baino hobeto bizi ziren (ETL-019/039)

Jaki mota guztiak biltzen zituzten herrian: oilaskoak, bildotsak, gasna.. Esposatzeko ere oiloa eman behar zenion. Eta meza ere ordaindu egin behar zen.

428. Pregoiak (ETL-019/041)

Apaizak elizan zein eta zein egunetan ezkondu behar ziren iragartzeko balio zuten pregoiek

429. Pregoi afaria (ETL-019/043)

Pregoi afari edo berenduak egiten zituzten batzuk. Baina ezkontza eguneko festa egin behar bazuten ez zuten deus ere egiten pregoi egunean.

430. Arreoak (ETL-019/045)

Maindireak, toailak... Bere arrea esaten du.

431. Doteak 1 (ETL-019/047)

Neska maizterra baldin bazen eta mutila etxaldekoa, neskak dotea eraman behar zuen.

432. Doteak 2 (ETL-019/049)

Dirua izaten zen dotea. Etxeko andreak esaten zuen diru kopurua eman behar zuen.

433. Zaharrek zuten erabakia (ETL-019/051)

Zaharrek esaten zuten nor geldituko zen etxerako eta zein lanerako. Etxerako gelditu behar denak dotea eman behar dio beste anaiei. Ezkongabea gelditzen bazen etxerako arazoa izan ohi zen. ("Solteros mandan mucho eh! Y solteras peor todavía!" Senarrak kameraz kanpo.)

434. Bokata (ETL-019/052)

Bokata: arropa xabotua sartu, zakua ipini muturrean, suko hautsa galbaian pasatu ikatza koxkorak kentzeko, ur beroa botaz, arropak atera eta askara

edo erre kara eraman. Usain ona uzten omen zion hautsak. Goiz guztia ematen zuten horretan. Gero zintzilikatu edo serenoan utzi.

435. Lixiba ura eta bokata arropa garbitzea (ETL-019/053)

Lixiba ura eta bokata arropa garbitzea. Arropa iluna harri gainean xabotzen zen bokatarik egin gabe.

436. Sardina erdi bana (ETL-019/055)

Ezagutu izan du gosalgaraian sardina erdi bana eta opila erdi bana jan behar izatea.

437. Sukaldeko lanak eta esaera (ETL-019/057)

Hamaika urtetarako opilak egiten zituen. Opilak nola egiten zituen kontatzen du. "Bezperako oreka, hagitz opil hobia"

438. Lurko suan (ETL-019/059)

Opilak erre, eltzaria egin...

439. Saskia buruan (ETL-019/061)

Bazkaria saskian sartu, saskia buruan ipini eta martxa maldangoti!

440. Janak (ETL-019/062)

Gasna, patata frijituak txingar gurinean erreak...

441. Bestetako janak 1 (ETL-019/064)

Lehen ardi zaharren bat. Ondoren bildotsa hazten hasi ziren

442. Bestetako janak 2 (ETL-019/066)

Olio zopa, garbantzuak, tripotxa, zuri beltzak, bildotsa, arroz esnea edo natila, kafea eta anis edo koñak kopa.

443. Tripotxak nola egin (ETL-019/067)

Tripotxa edo txuri-beltza. Bildotsaren hesteak ongi garbitu, egosi. Perrexila eta arrautzaz bete. Bildotsaren odol egosia, gibela, bihotza... xehatu eta olioan pasatu ondoren tomate saltsan jarri. Ardiarekin ere antzera nola egiten zuten kontatzen du baina hau idorragoa geratzen omen da.

444. Oiloa arrozarekin (ETL-019/069)

Oiloa eta oilarra arrozarekin jartzen zen. Andra Mari egunean.

445. Arrautzak saldu (ETL-019/071)

Arrautzak ez zituzten jaten. Behar eta ez zituzten gauzak erosteko, arrautzak saldu behar zituzten. Xaboa, arroza... erosteko.

446. Goatzeak arrotu (ETL-019/073)

Izugarrizko lana izaten zen goatzeak arrotzearena. Koltxoi guztia askatu behar ziaten zuten eta geruzaz geruza artilea jarri. Bere lehengusinak beste era batean egitea gomendatu zion. Amak moda berria ote galdetu arren ondoren ikusi zuten denbora erdian lan egiten zutela sistema berriarekin. Hilea

arrotzeko berriz makilarekin jo behar izaten zuten. Ondoren makina batzuk ere atera ziren baina haiek hilea hautsi egiten zuten.

447. Koltxoiak zikindu egiten ziren (ETL-019/075)

Urtero garbitzen ziren koltxoiak zikindu egiten baitziren eta ez zegoen orain bezalako "funda"rik.

448. Jergonak eta lastairak (ETL-019/077)

Jergona forratuak eta lasto orriz egindakoak egon ohi ziren.

449. Koltxilak (ETL-019/079)

Mantaren ordeztuak koltxilak izaten zituzten. Artilez betetakoak. Nola betetzen zuten esaten du.

450. Zakuekin arropak (ETL-019/080)

Oroitzen du zakuekin nola egiten zituzten arropak eta gero tindatu.

451. Abarkak (ETL-019/081)

Zolak kubiartekin egiten zituzten eta gaina pneumatikoekin. Sokekin lotuak

452. Panazonia eta baratxuria zizareentzat (ETL-019/083)

Zizare belarra da panazonia. Uretan egosia hartzen zuten zizareendako . Baratxuria berriz koilare eta eskumuturreko moduan jartzen zuten.

453. Pasmobelar ukendua (ETL-019/084)

Celedonia edo iodobelarra, pasmobelarra, berbena eta astunba lorea bildu. Oliba olioan frijitu eta iragazi. Gero argizari birjinarekin loditu.

454. Berbena kataplasma (ETL-020/002)

Berbena eta arrautza zuringoarekin kataplasma egin eta beroa emanaz ahalik eta denbora gehien izan behar da kolpearen gainean. Sinusitisa ere sendatzen du.

455. Pasmobelarra eta berbena edan (ETL-020/003)

Kontu handia izan behar da kantitate oso txikian edan behar da pasmobelarra. Odol garbitzeko balio du. Berbena edanik ere katarroentzat eta ona omen da.

456. Erretako zaurientzat (ETL-020/004)

Berbena, kamomila eta aztunpa lorea. Oliba eta argizariarekin.

457. Suspelak kentzeko (ETL-020/006)

Erreka bazterreko belar hosto handiari azala kendu eta ateratzen duen likido berdea bizpahiru egunez eman eta uspela desagertu egiten da.

458. Kailoak kentzeko (ETL-020/008)

Erreka bazterreko belar hosto handia, pasmobelarra eta aztunpaloreak .

459. Mingaineko legarra eta kakeria mozteko (ETL-020/010)

Giltza pasatuta legara kentzen du. Kakeria kentzeko legar punta freskoa uretan egosita manzanilla piskatekin. Idorra bazara aldiz porrua jan eta lehen te reina eta baziren.

460. Gangarrilak eta sarna kentzeko (ETL-020/011)

Gatza pasatu, hitz batzuk esan gatz harrekin eztatzen gurutzea egiten den bitartean eta gatz hura sura bota.

461. Tropesia 1 (ETL-020/013)

Bederatzi gailera bedeinkatzen dira eta zinta bat arrosa kolorekoa eta bedeinkatua. Moskatel pixka batekin baraurik hartu behar da gailera bedeinkatuekin. Sinesmen gehiago. Tropesiarekin hazi egiten zara. Suker gogorrak.

462. Tropesia 2 (ETL-020/015)

“Urte bat eta hiru hilabetera ez baduzu gaitz hau sendatzen eta medikuek ez dakite tratatzen, hil egiten zara” Elizan bada santu berezi bat Tropesiaren bedeinkapenatarako.

463. Etxeko terrenoa bedeinkatu sendatzeko (ETL-020/016)

Arrak edo lugartza sendatzeko etxeko terrenoa eraman behar zaio apaizari bedeinkatzeko.

464. Sorginak (ETL-020/018)

(Senarra Joxe Ramon) Lehenagokoek esaten zuten bazirela sorginak. Sorginak gela eta armairutan ateratzen zirela.

465. Aurkezpena eta lehen harremanak euskararekin (ETL-023/001)

Joxema etxalartarra da eta 60 urte ditu. Euskararen mugimenduekin lehen kontaktua 16-17 urterekin izan zuen, Ttipi Ttaparen bidez. Euskaltegian ere aritu zen, bai eta Etxalarko Atxata kultur elkartearen ere.

466. 80ko hamarkadako Etxalarko giroa (ETL-023/002)

80ko hamarkadan, Etxalarren ikastola martxan zen, eta baziren kultur elkarte batzuk herrian.

467. 80ko hamarkadako mugimendua EH eta Bortzirietan (ETL-023/003)

80ko hamarkadan, euskararen aldeko mugimendu handia zegoen Euskal Herri osoan. Gauza pila bat sortu ziren hezkuntza, komunikabide, kultur eta bertzelako arloetan. Bortzirietan ere hala izan zen: euskaltegia, irratia, komunikabideak...

468. Euskararen presentzia Etxalarren (ETL-023/004)

Etxalar mugako herria izaki, berezia zen garai hartan. Mugimendu handia zegoen, Guardia Zibilen kuartela... eta horrek euskararen presentzian eragina izan zuen.

469. Euskararekiko hurbilpena (ETL-023/005)

HOHn (EGB) zegoelarik, lagunen artean gaztelaniaz egiten zuten, eta hautu kontzienteaz, euskaraz solastatzea erabaki zuten. Modu naturalean, mugimendu politiko eta kulturalaren eraginez, euskararat hurbildu zen Joxema.

470. Alfabetatzea (ETL-023/006)

Modu autodidaktan alfabetatu zen Joxema, gramatika liburuak erabiliz eta aunitz irakurritz.

471. Euskaltegian irakasle (ETL-023/007)

Alfabetatu ondotik, euskara irakasle aritu zen Bortzirietako euskaltegian. Lehenbiziko klaseak Berako kultur etxean eman zituen, eta izan zuen lehenbiziko taldea zerotik hasi zen; gehienak irakasleak ziren.

472. Euskaltegiko klaseak (ETL-023/008)

Euskaltegiko lehenbiziko klase haiek prestakuntza handirik gabe egiten ziren; halere, bazuten gidoi gisako bat klasea gidatzeko.

473. Euskaltegiko giroa (ETL-023/009)

Euskaltegiko irakasleen artean giro ona izaten zuten, lagun giroa. Ikasleekin hasieran hotzagoa izaten zen, baina talde dinamikako jardurekin, giroa goxatzen zuten.

474. Matxinbeltzenea, AEKtik IKArA (ETL-023/010)

Euskaltegi batzuek autonomia gehiago aldarrikatzen zuten, eta hondarrean, Bortzirietakoa AEKtik atera zuten. Prozesu horretan, IKA sortu zen, bai eta Matxinbeltzeneako proiektua ere.

475. Matxinbeltzenea eta Ttipi Ttapa, paraleloan (ETL-023/011)

3-4 urte eman zituen Joxemak euskaltegian. Gero kazetaritza ikasten hasi zen, eta Matxinbeltzenea sortzen hasi zirenerako, bera Ttipi Ttapako proiektuan zegoen murgildua. Garai hartan, hamarbortzkaria izatea lortu zuten.

476. Ttipi Ttaparen hasiera (ETL-023/012)

Joxema hasieratik aritu zen Ttipi Ttapan, bertan idazten. 1981-89 bitarte, hiru hilabetetik behin argitaratzen zen aldizkaria, eta lagun kuadrilla bat arduratzen zen hartaz. Halere, joan-etorri aunitz baziren jendearen artean, eta proiektua mantentzeko, urrats kualitatibo bat eman eta proiektua profesionalizatu beharra ikusi zuten.

477. Joxema Ttipi Ttapan sartzea (ETL-023/013)

82an hasi zen Joxema Ttipi Ttapan, Trini Mikelarenak gonbidatuta.

478. Ttipi Ttapako edukiaren garapena (ETL-023/014)

Hasmentan, Ttipi Ttapa ez zen kazetaritza proiektu bat; fanzine gisakoa zen. Euskararen alde egiteko erreminta bat zen: espresio kulturala adierazteko modua, artikulua biltzekoa, sormen lanak... Gerora, tokiko kronikak biltzen hasi ziren, erreportajeak garatzen...

479. Ttipi Ttaparen erreferenteak (ETL-023/015)

Ttipi Ttaparen hasieran, zituzten erreferenteak literatur aldizkari gisakoak ziren. 89an, Arrasate Press izenekoa martxan paratua zen, eta garai berrietako erreferentea izan zen.

480. Ttipi Ttaparen profesionalizazioaren hasiera (ETL-023/016)

Ttipi Ttapa profesionalizatzeko prozesuan, Arrasate Press ezagutzera joan ziren: antolaketa, finantzazioa, harpidetza sistema... Ttipi Ttapak ordenagailuak erosteko eta bertze gauza batzuetan inbertitu ahal izateko, hasiera hartan, mailegu bat eskatu zuten.

481. Garapen teknologikoa (ETL-023/017)

Ordenagailuak erosi baino lehen, idazmakinan idazten zuten aldizkaria.

482. Ttipi Ttapako lehenbiziko langileak eta lokala (ETL-023/018)

Karmele Tolosa eta Joxema izan ziren Ttipi Ttapako lehenbiziko langileak. Denbora gutira, Aitor Arozena ere sartu zen. Berako herriko etxeko lokal batean hasi ziren.

483. Ttipi Ttapari babesa (ETL-023/019)

Finantzazioari dagokionez, Bortzirietako udalen eta euskara mankomunitatearen babesa izan zuen Ttipi Ttapak, baita Nafarroako Gobernuarena ere. Harpidetza-sistema ere bazuten, eta hasiera batean, ez zuten hori kobratzen.

484. Ttipi Ttaparen garapena: telebistak eta erran.eus (ETL-023/020)

1997an, Rikardo Arregi kazetaritza saria irabazi zuen Ttipi Ttapak, beren edukiak interneten sartzearatik. Handik gutira, Ttipi Ttapa telebista martxan paratu zuten; Xaloe telebista ere bai. Baina 2009an, dirulaguntza eta lizentzia falta medio, Ttipi Ttapa telebista itxi behar izan zuten. Geroago, erran.eus ataria abiatu zuten.

485. Eskualdeko euskarazko irratia (ETL-023/021)

Eskualdeko euskarazko irratietan ez zen aritu Joxema, baina Xorroxinen sorrera hurbiletik ezagutu zuen, ezagunak baitzituen bertan aritzen zirenak.

486. Etxalarko ikastola sistema publikoan txertatzea (ETL-023/023)

Etxalarko ikastolako juntan ere aritu zen Joxema. Ikastola sare publikorak pasatzeko prozesua bizi izan zuen bertan: Etxalarko ikastolako irakasleak nola txertatu hezkuntza publikoan eta halako kontuak. Prozesu hori akabatuta, handik gutira, Altxata kultur elkarteak sortu zen.

487. Altxata kultur elkarteak (ETL-023/024)

Altxatak hainbat gauza dinamizatu ditu Etxalarren: kultura, dantzak, kirola, euskararen inguruko jarduerak... Joxema elkartearen sorreran aritu zen 80ko hamarkadaren akaberan.

488. Pello Apezetxeari buruz (ETL-023/025)

Pello Apezetxea pertsona garrantzitsua izan zen Etxalarren. Hagitz aktiboa zen; txistu klaseak eta euskara klaseak ematen zituen, baserrietako pisten bultzatzailea izan zen, baserritarren kooperatibaren sustatzaile... Arlo guzietan aritzen zen Pello.

489. Pello Apezetxearen lan eremua (ETL-023/026)

Pello ikerketa aferetan ere aritu zen, Etxalarko historiari buruz ikertzen, toponimiari buruzko hainbat lan egin zituen... Pelloren lan eremua hagitz zabala zen.

490. Bizitako garaien errepasoa (ETL-023/027)

Bizitako garaien errepasoa egiten du Joxemak. Hasieran, aktibismoaren eskutik euskararen aldeko mugimenduan aritu zen. Gero, poliki-poliki, bertze sakontasun maila batekin Ttipi Ttapan zentratu zen.

491. Garai hartako eta Ttipi Ttaparen garapenaren balorazioa (ETL-023/028)

Garai hartako balorazio positiboa egiten du Joxemak. Gauza aunitz lortu dira euskararen inguruan, baita Ttipi Ttapa eta erran.eus atariaren inguruan ere.

492. Ttipi Ttaparen profesionalizaziotik gaur egunera (ETL-023/029)

89an Ttipi Ttaparen profesionalizazioa eman zen, eta hari esker da Ttipi Ttapa gaur dena.

493. Etxalarko egungo egoera (ETL-023/030)

Etxalarren euskara gehiago jakin eta erabiltzen omen den arren, Joxema kezkatuta dago neurri batean. Iruditzen zaio gaztelania eremu batzuetara zabaltu dela.

494. Egungo egoeraren gakoa (ETL-023/031)

Etxalarko kasuan, bertze herri batzuetan bezala, turistek eta immigrazioak euskararen erabilera baldintzatzen dute. Halere, gakoa euskaraz dakitenek euskararen hautu kontzientea egitea da.

495. Kontxexiren aurkezpena (ETL-024/001)

1937an sortu zen Kontxexi, Etxalarren. Eskolan gaztelaniaz ikasi zuen, eta ez zuten euskaraz egiten ahal, zigortu egiten baitzituzten. Etxean euskara mantendu zuten; kantatu eta irakurri egiten zuten.

496. Formakuntzari buruz (ETL-024/002)

Frantziara egon zen lanean zenbait urtez. Bien bitartean ikastaro batzuk egin zituen; formazio pixka bat lortu zuen haurrekin, kolonietan.

497. Olagueko ikastolan hasi zenekoaz (ETL-024/003)

Frantziatik bueltan, Olagueko ikastolan lan egiteko aurkeztu zen. San Fermin ikastolan egon zen bertako materiala, metodologia eta antolakuntza nolakoak ziren ikusteko. Ondotik, Olaguen hasi zen.

498. Olaguen euskararen ezagutza (ETL-024/004)

Olagueko ataxi-amatxiek bazekiten euskaraz, baina ez zieten seme-alabei transmititu. Baina haurrak ikastolan hasi zirelarik, ataxi-amatxiak berriz ere hasi ziren poliki-poliki hurrekin euskaraz solasean. Eskola publikoko haurrak joaten ziren arratsaldeetan ikastolara euskara-eskolak hartzera Kontxexirekin. Gurasoak horren aldekoak ziren.

499. Gurasoen jarrera (ETL-024/005)

Eskola haietan kantari aritzen ziren, jolasak egiten zituzten. Gurasoek jarrera ona zuten, irakasleek eta gurasoek elkarrekin egiten zuten lan.

500. Etxeko kantak ikastolan (ETL-024/006)

Etxean ikasitako kantak irakasten zituen Kontxexik ikastolan, ez baitzuen bertze materialik.

501. Etxalarko ikastolara (ETL-024/007)

6 urte egon zen Kontxexi Olaguen. Berako ikastolan lan egiteko eskaintza egin zioten, baina Olaguen konpromisoa hartua zuen ordurako eta ezetz erran zuen. Bi urte geroago, Etxalarko ikastolan hasi zen.

502. Pello Apezetxea, beti laguntzeko prest (ETL-024/008)

Etxalarren Pello Apezetxea aritu zen euskararen aldeko mugimenduan. Euskaltegia hasi baino lehen, bera aritu zen euskara-klaseak ematen.

503. Etxalarko ikastolako klaseen antolaketaz (ETL-024/009)

Ikastolaren sorreran ere Pello aritu zen lanean. Etxalarren orduan ez zegoen Haur Hezkuntza, eta Kontxexi hasi zelarik, 3-4-5 urteko haurrak hartu zituen, 33 inguru guzira. Klaseen antolaketaz solastatzen da: hasieran elkarrekin egoten ziren haur guziak (aurkezpena eta kanta) eta gero lana banatzen zuten espazioka. Jostatzeko xoko bat ere bazuten. Gurasoek lagundu egiten zuten; bai gurasoek bai herriak elkartasuna erakutsi zuten.

504. Ikastola non zegoen (ETL-024/010)

Egun Larraburua Elkartea dagoen lekuan zegoen ikastola.

505. Polizia eta Guardia Zibilen seme-alabak (ETL-024/011)

Polizia eta Guardia Zibilen seme-alabak ere izan zituen klasean.

506. Klaseko lehenbiziko egunaz (ETL-024/012)

Klaseko lehenbiziko egunerako, haur guziak ezagunak zituen Kontxexik .

507. Ikastolaren finantziakzioa (ETL-024/013)

Ikastolan bazegoen batzorde bat, eta gurasoek kuota bat ordaintzen zuten. Soldata diputazioak ordaintzen zuen, baina kuoten bidez osatzen zen, baita material guzia erosi ere. Gainera, dirua lortzeko, usategietako igandean ostatua paratzen zuten gurasoek eta gazteek. Diru-aferei zegokienez, egoerarat egokitzen ziren.

508. Ikastolaren harrera herrian (ETL-024/014)

Oro har, harrera ona izan zuen ikastolak Etxalarren. Halere, geroago, eskolan A ereduak kendu eta D ereduak bakarrik gelditu zelarik, guraso batzuk haurrak Berako mojetara eramaten hasi ziren.

509. Euskara-klaseak eskolako haurrei (ETL-024/015)

Etxalarren ikastolak bazuen harremana eskolarekin. Eskolako 4. eta 5. mailakoei 09:00-10:00 bitarte euskara-klaseak ematen zizkien Kontxexik, eta 10:00etan ikastolan hasten zen.

510. Bortzirietako ikastolen elkarlana (ETL-024/017)

Bortzirietako ikastolakoak astero elkartzen ziren, eta elkarrekin prestatzen zuten dena: programazioa, marrazkiak, ekitaldiak, kantak... Elkar laguntzen zuten

511. Klaseko materiala (ETL-024/018)

Kopiak egiteko kalkoak egiten zituzten. Material guziaz prestatu behar izaten zuten, orduan ez zuten libururik.

512. Telefonoz kantak oroitarazten (ETL-024/019)

Kantak prestatzen zituztelarik, doinuaz oroitzen ez baziren, telefonoz deitu eta elkarri oroitarazten zizkioten kantak.

513. Magisteritza ikasketak eta euskara-titulua (ETL-024/020)

Kontxexik Magisteritza ikasi zuen Bergarako UNEDen, eta hizkuntza eskolako euskarazko titulua ere atera zuen.

514. Imanol Urbietarekin klaseak (ETL-024/022)

Doneztebeko eskolan ere formazioa jaso zuen Kontxexik, Imanol Urbietaren eskutik. Jolas motrizitateak egiten zituzten bertan, kantak, musika...

515. Magisteritzako ikasketez (ETL-024/023)

Ikastolan 4 urtez lanean eman ondotik sartzen ahal ziren magisteritzako ikasketa haietan.

516. Etxalarko ikastola eskola publiko bihurtzea (ETL-024/024)

Ikastolakoek ez zuten jakin hezkuntza sistema publikoaren baitan geldituko zirela. Baina hala egin zuten, ikastolakoek onartu, eta sistema publikoaren D ereduari sartu ziren.

517. Bi ikastetxeak elkartzeaz (ETL-024/026)

Ikastola eskolaren parte izatera pasatu zenerako, ordurako eskolan bazegoen D ereduak (4. eta 5. mailakoak). Bi ikastetxeak elkartzeaz solastatzen da.

518. Berako eskolarat seme-alabak eraman nahi (ETL-024/027)

5. mailan, gurasoei baimenik eskatu gabe ikasgai gehiago euskaraz ematen hasi zen irakasle bat, eta arazoak izan ziren. Hala, horren kontra zeuden gurasoetako batzuk Berako Ricardo Barojarat eraman nahi izan zituzten beren seme-alabak, baina bertako zuzendariak ez zien hori egiten utzi.

519. Eskolako irakasle erdaldunez (ETL-024/028)

Euskaraz ez zekiten eskolako irakasle batzuk "birziklatuak" ziren eta euskara ikasteko aukera eman zieten. Irakasle erdaldun horietako bat zuzendari sartu zen Etxalarko eskolan, Kontxexik zuzendari-postua utzi ondotik, eta guraso batzuek gogor egin zioten. Hala, hurrengo urterako martxa egin zuen zuzendari erdaldun hark.

520. Tolosan irakasle (ETL-024/029)

Tolosan ere aritu zen irakasle-lanetan Kontxexi. Bertan euskararen behar handia zuten, eta gurasoekin aski ongi moldatu zen.

521. Pedagogia ikasketak (ETL-024/030)

Tolosan zelarik, pedagogia ikasteko probestu zuen Kontxexik.

522. Tolosa, Irun eta Igantziko ikastolak (ETL-024/032)

Tolosako ikastolan funtzionario egin zuten Kontxexi. Gero, Irunerat joan zen lanera, euskarako adarrean. Bertako gurasoekin ere ongi moldatzen zen. Irunen bi urte eman ondotik, Igantziko ikastolan hasi zen.

523. Igantzitik Etxalarko ikastolarat (ETL-024/034)

Igantziko ikastolatik Etxalarkorat joan zen gero Kontxexi. Etxalarren familiak, herriko giroa... ezagutzen zituen, eta haiei laguntzeko prest egoten zen.

524. Irungo ikastola (ETL-024/035)

Irungo ikastolaz solastatzen da, eta bertan euskaraz irakastearen zailtasunaz.

525. Etxalarko haur guziak euskaldunak (ETL-024/036)

Etxalarren gaur egun haur guziek dakite euskaraz, eta guraso guziek euskaraz egiten diote Kontxexiri.

526. Etxalarko euskal giroa (ETL-024/038)

Etxalarko ikastolan hasi zelarik, euskal giroa nabaritzen zen herrian. Pello Apezetxeak elizan euskara erabiltzen zuen, eta gazteekin ere gaia lantzen zuen. Alfabetatzeko klase batzuk ere antolatuak zituzten herrian.

527. Irakasleak gaztelaniaz egiteko eskatu (ETL-024/039)

Eskolako irakasle batek gurasoei erraten zien hurrei gaztelaniaz egiteko, gaztelania ere ongi ikasteko. Eta guraso batzuek hala egiten zuten.

528. Egin beharrekoa (ETL-024/041)

Garai hartan, ikastolakoek egin behar zena egin zuten, sobera pentsatu gabe.

529. Bortzirietako eskolen arteko koordinazioa (ETL-024/042)

Bortzirietako eskola publikoak koordinatzeko elkartzen ziren, hamabortz egunean behin, Ricardo Barojan, Beran. Formazioa ere elkarrekin egiten zuten.

530. Gustura irakaskuntzan (ETL-024/043)

Kontxexi beti gustura aritu da irakaskuntzan eta oroitzapen onak ditu.

531. Eskolara buelta eta haurraren eguna (ETL-024/044)

Eskola utzi zuenetik, Kontxexi ez da berriz bueltatu. Haurraren egunari buruz solastatzen da.

532. Euskararen aldeko jarrera etxetik (ETL-024/045)

Kontxexik etxetik hartu zuen euskararen aldeko jarrera. Familian bazuten euskaltzain apez bat, eta hark material aunitz zuen euskaraz.

533. Pello Apezetxea, beti euskararen alde (ETL-024/046)

Pello Apezetxeak herrian euskararekin zerikusia zuen guzian aritu zen. Pellori omenaldia egin diote Euskaltzaindiakoek, eta BEMeko beka aipatzen du.

534. Pellok egindakoez (ETL-024/047)

50 urte bete zituelarik, besta handi bat egin zioten Pellori. Baserrietako pistak, kooperatibak, etxeetan telefonoa paratzea... Pellok sustatu zuen. Medikuak euskaldunak izateko kanpainan ere aritu zen.

535. Etxalarko jendeaz (ETL-024/049)

Etxalarren kalean jendea gaztelaniaz ere sumatzen du Kontxexik, baina pentsatzen du euskarazko gauzak antolatzen direlarik beraiek ere joanen direla.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-04-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com